



GAINZA eta IRAZOKI
Txistulari egunean omenduak → 19

Moda

Gehigarri berezia → 11-18

BERTSOLARITZA → 10

Nafarroako Txapelketako finala apirilaren 9an

BEINTZA-LABAIEN → 30

Aizkoraren Museoa egiteko laguntza onartua

ARESO → 37

Jone Lozano atxilotu du Frantziako Poliziak

BAZTAN → 42

Irurritako eskola berria apirilaren akituko da

17. KORRIKA | Trebiñu-Donostia, apirilaren 7tik 17ra

Baztandik Senpere aldera apirilaren 11n pasatuko da

Astelehen goiz horretan sartuko da Artesiagako lepotik Irurita aldera eta Baztan, Bertizarana, Malerreka, Bortziriak, Sara eta Senpere zeharkatuko ditu goizetik ilunabarrera. Alabaina, edizio hone-

tan euskararen aldeko lasterketarik handienak ez ditu Leitza inguruko herriak zeharkatuko. Eta lasterketaren arrimuan, aurtengoa ere hainbat kultur ekitaldi antolatu dira han eta hemen.

17. edizio honetarako *Mai-tatu, ikasi, ari... euskalakar* leloa hautatu dute. Euskara eta kalakari hitzen arteko elkarketa eginez.

ERREPORTAJEA → 4-5


EUSKALAKARI



ELKARRIZKETA → 3

'Umore zintak marratzen saiatu zen komikilaria'

Joseba Larratxe *Joseviski* komikilari beratarrak Gasteizen aurkeztu du bere lehen komiki erakusketa.



SARA → 37

Inertzia kirolen txapelketa eta erakustaldia

Goitibera, Skate, Luge eta Roller-en gainean Santinazio lepotik beheiti ziztu bizian. Apirilaren 9 eta 10ean izanen da hori.

ZOKKETAK → 55



Txartela egiteko deitu
948 63 54 58 telefonora





BERA LESAKA AGENDA APIRILA 2011

1 **KOMIKI TAILERRA**
BERA - Berako Herri Liburutegian
17:30-19:30 - 8-13 urte
Antolatzailea: Berako Liburutegia
Berako Kultur Batzarria

1 **HITZALDIA | PATXI ABASOLO**
Konkistak 500 urte "Iburuaren 2. edizioaren aurkezpena"
LESAKA - Liburutegia - 18:00
Antolatzailea: "1912-2012 Nafarroa Berri"
Laguntzailea: Lesakako Udala

3 **KENPO KAI TXAPELKETA OFIZIALA**
BERA - 10:00-13:00 Estregera pilotalekuan
Antolatzailea: Kenpo Kai Elkarte

9 **BERAKO MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA**
BERA - Kultur Etxea - 20:00 | Antolatzailea: Berako Musika Banda

16 **LESAKAKO MUSIKA ESKOLA KONTZERTUA**
LESAKA - Ukalitana - 17:00
Antolatzailea: Lesakako Udai Musika Eskola
Laguntzailea: Lesakako Udala

16 **LESAKAKO GAZTE EGUNA**
LESAKA - Herriaren
Antolatzailea: Lesakako Gazte Asarriak | Laguntzailea: Lesakako Udala

16 **MENDI MARATOI ERDIAREN AURKEZPENA**
BERA - Berandata - 18:00
Antolatzailea: Maratela

17 **BERAKO VII. MENDI MARATOI ERDIA**
BERA - Irteera: 09:30 Kroidegian
Argibide gehiago: www.maratela.com
Antolatzailea: Agorro Mendiko Taldea, Maratela Mendiko Lasterketa Taldea,
Gure Taldea (Elkarrekin eta Eskual Mendiarik Federazioa)

17 **LESAKAKO ZERBITZUEN ELKARTEA UDABERRIKO AZOKA**
LESAKA - Pilotalekuan
Antolatzailea: Lesakako Zerbiztu Elkarte | Laguntzailea: Lesakako Udala
Laguntzailea: Lesakako Udala

20 **UDABERRIKO KONTZERTUA**
BERA - Kultur Etxea - 17:30
Argibide gehiago: www.maratela.com
Antolatzailea: Inelora Fagoga Udai Musika Eskola

28 **GIMNASIA ERAKUSTALDIA ARKUPE ELKARTEA**
BERA - Toki Ora Kroidegia - 11:00-13:00
Antolatzailea: Arkupel Elkarte

BERA LESAKA

Ekitaldien gaineko informazio gehiago: 012 telefonon
www.berakoudala.net | www.lesaka.net



TTIPI-TTAPAK ZURE LAGUNTZA BEHAR DU

zure bezeroek
aukeratutako
proiektua
can
proiektu
zenbakia
15.996

Zure laguntza eskertzeko
DOKUMENTU-POLTSA
bat izanen duzu opari



Boligrafo, identifikazio txartela eta mugikorrerako konpartimentuak



ttiipi-ttapa

Eska ezazu TTIPI-TTAPAren proiektua aukeratu izanaren frogagiria Nafarroako Kutzaren zure bulegoan eta ekar ezazu TTIPI-TTAPAra abenduaren 30a baino lehen.

Hilabete honetan, Gasteizen aurkeztu du bere lehen komiki erakusketa Joseba Larratxe gazteak (Bera, 1985), *Umore Zintak marrazten saiatu zen komikilaria*

izenburupean. Arkitekturaren inertziaz sartutakoa, modu paraleloan eraman ditu ikasketak eta komikigintza. Ez daki etorkizunearn arkitektoa izanen den, baina badaki

komikiak beti marraztuko dituela. Matrakan, Nabarran, IKAre aldizkarian eta Aldiri arkitektura aldizkarian egiten dituzko kolaborazioak marrazkilari honek.

Joseba LARRATXE *Josevixky* | Berako komikilaria

«Umore puntuarekin mezuak errazago iristen dira jendearengana»

M. MARTIARENA | BERA

Lehenagotik egin izan duzu erakusketarik?

Orain dela gutti nik egin dako bideoklipen proiektio bat egin genuen Irungo ostatu batean. Hori izan da jende aitzinean aurkeztu dudaren lehen proiektua. Baina komikigintzan hau da lehena.

Nolatan sortu zen erakusketa egiteko ideia?

Aurten Korrika ospatuko denez, Gasteizko AEKn lan egiten duen lagun batek proposatu zidan Korrika Kulturalaren barruan erakusketa egitea. Zinta batzuk prestatzen joan nintzen, batzuk lehengoak, bertzeak oraingoak, erakusketa osatu arte.

Betidanik marraztu izan al dituzu komikiak?

Komigintzan aspaldi hasi nintzen. Euskal Herriko hainbat komiki lehiaketetan hartu nuen parte. Ondotik eman nuen zintak marrazteko pausoak.

Nolakoa izan zen urrats hori?

Berriak argitaratzen zuen Matraka gehigarrian egin nituen lehen kolaborazioak. Umore zintak eskatu zizkidaten eta orduan moldatu behar izan nuen formatu motz eta azkarra gora. Inoiz ez nituen umore zintak eginak. Moldatzen joan eta pixkanaka, hainbat aldizkaritan kolaboratzen joan naiz.

Zein desberdintasun dago komikitik umore



Joseba Larratxek bere buruari egindako marrazkia.

zintetara?

Komikiak era artistiko batean lantzen uzten dizkizu bai marrazkiak eta baita zabaldu nahi diren mezuak ere. Zinten formatua tikiagoa denez, dena murriztu egiten da.

Umore zintak marrazten saiatu zen komikilaria izenburua du erakusketak. Horrela definitzen duzu zure burua? Saiatu hitz hori nahita jarrita dago izenburuan. Izan ere, umorea ez diren bertze tonu eta gai batzuk ere lantzen ditut, bazueta umorea egiteko

KOMIKIEN EGOERA

«Umore zinten osasuna komikiena baino hobea da. Euskal Herriko komiki zintetan tradizioa eta segida badago. Komikigintzan, berriz, egoera ilunagoa da. Herri txikia gara eta ezin zaio eskatu mundu mailan hagitz minoritarioa den arte bati Euskal Herriko hobeto egotea. Zaletasuna handitzen ari bada ere, komiki gutti egiten ditugu.»

saiakera egin behar izaten baitut. Mikel Laboa hil zenean, adibidez, zinta bat eskaini nion omenaldi moduan.

Zein mezu iristarazten dizkiozu jendeari?

Zintekin gaurkotasunaren alderdi batzuk azaltzea izaten da helburua. Jendeari alarma piztea. «Adi! Begira zertan dabil-tzan!» esatea, beti ironia eta umore puntu batekin. Mezuak modu horretan hobeto iristen direlako. Normalean umorea gai adierazgarri eta salagarriekin egiten dut.

Nola ikusten duzu euskal komikigintzaren eta umore zinten osasuna?

Umore zinten osasuna komikiena baino hobea da. Zintetan tradizioa eta segida badago. Komikigintzan, berriz, egoera ilunagoa da. Herri txikia gara eta ezin zaio eskatu mundu mailan hagitz minoritarioa den arte bati Euskal Herriko hobeto egotea. Komiki zaletasuna handitzen ari bada ere, hagitz komiki gutti egiten ditugu Euskal Herriko.

Kkird.com web orria ere aurkeztu duzue...

Lazaro Yak Boldo herritararekin batera egin duan orrialdea da. Kafe ordu aunitzen ondotik sortutako ideia da. Bera zinemari ibilia da eta bien lana uztartu dugu orrialde honen sorrerarako. Aspalditik geneukan buruan ideia bueltaka. Bien artean egindako komikiak jarriko ditugu. Lehenengo prestatuta dago eta bigarrena ere laster zintzilikatuko dugu. Jendeari guk egiten duguna iristeko modu baliagarria iruditzen zaigulako jarri dugu martxan.

Etorkizunean komikilaria izanen al zara?

Ez dakit komikilaria izanen naizen ala ez. Argi dudana da komikiak bizitza osoan marraztuko ditudala. Arkitektura bukatzen ari naiz, baina oraindik ez dakit arkitektoa izanen naizen.



ARTXIBOKO ARGAZKIAK

Duela bi urte ere eskualdean barna pasatu zen Korrikaren lekukoak.

EUSKARA → AEK-K ANTOLATUTAKO EUSKARAREN ALDEKO LASTERKETA

Apirilaren 11n 100 kilometrotik goiti eginen ditu Korrikaren lekukoak eskualdean

Artesiagako lepotik barna sartuko da Iruritara eta Baztan, Bertizarana, Malerreka, Bortziriak, Sara eta Senpere zeharkatuko ditu goizetik ilunabarrera

Maitatu, ikasi, ari... euskalakari lelopean eginen da Euskal Herri osoan egiten den euskararen aldeko lasterketarik haundiena.

Apirilaren 7an abiatuko da Trebiñutik, eta hilaren 17an ailegatu Donostiara. Bitarte horretan bi mila kilometrotik goiti eginen ditu.

G. PIKABEA

Pausoz pauso, herriz herri eta herrialdez herrialde, Korrika 17ren lekukoak bi mila kilometrotik goiti eginen ditu

Euskal Herri osoan barna, *Maitatu, ikasi, ari... euskalakari* lelopean, milaka euskaltzaleren eskuetatik pasatuz. Euskararen etakalakar hitzen arte-

ko elkarketa da aurtengo leloan aukeratu duten *euskalakari* hitza. Kalakaria aunitz solastendena denez, *euskalakari* euskaraz aunitz egiten

duena da. Hain zuzen, horixe da Korrikaren helburuetako bat, hitz hau euskaldun guztien artean zabaltzea.

AEK-k antolatutako euskararen aldeko lasterketa apirilaren 7an abiatuko da Trebiñutik eta hamar egun beranduago ailegatu da helmugara, apirilaren 17an Donostiara. Eskualdea ere zeharkatuko du Korrikak, 103,6 kilometro eginen baititu Baztan, Bertizarana, Malerreka, Bortziriak, Sara eta Senperen. Leitzaldetik, ordea, aurtentzen ez da pasako.

Apirilaren 11n, astelehenerekin, Eugin barna Artesiagako lepotik Iruritara sartuko da eta **Baztan**en 45,2 kilometro eginen ditu: N-121 B errepideari segituz, Irurita, Gartzain, Elizondo, Elbete eta Arizkundik pasatuko da. NA 2601 errepide hartu eta Arizkun aldera abiatu eta Erratzura joanen da, eta Erratzun buelta hartu eta

Arizkongo bidegurutzetik pasatuz, Elbete, Elizondo, Gartzain, Irurita, Arraioz eta Oronoz-Mugairi igaroko ditu.

Handik **Bertizarana** rantz abiatuko da NA-1210 errepidetik, eta Oieregi, Narbarte eta Legasan 3,9 kilometroko bidea eginen du. Hemenetik **Malerreka** joanen da Korrikaren lekukoak Doneztebe eta Sunbillatik pasatuz. NA 121 A bideetik Malerrekan 13,7 kilometro eginen ditu. Sunbillatik, **Bortzirieta** sartuko da, eta Igantziko Bentetatik goiti, Igantzi herrigunean barna, Lesakara joanen da, gero Beraldera abiatzeko. 17,8 kilometro eginen ditu Bortzirieta. Beratik, beriz, Lizuniagan barna **Sara** aldera joko du eta ondodetik **Senperera**. Sara eta Senperen 23 kilometro eginen ditu eta 19:10 aldera, Senpere utzi eta Baionarako bidea hartzen duenean agurtuko ditu eskualdeko bazte-

rak Korrika 17ren leku-koak.

EUSKALTZAINDIA

Korrikaren aurtengo omendua Euskaltzaindia izanen da. AEKtik adierazi dutenez, «1919an sortu zenetik euskara babestea izan duelako xede eta geroztik hizkuntzaren iraupenerako eta hedapenerako beharrezkoak diren baldintza egokiak sortzen dituelako».

KORRIKA LAGUNTZAILEA

Duela hiru Korrikaparratu zen abian Korrika Laguntzailea kanpaina. Laguntzaile egiten diren guztiek 12 euroren truke, laguntzaile direla adierazten duen pina, urtariletik aitzinera Euskal Herriko ehunka komertziotan beherapenakizatea ahalbidetuko dien txartela, eta txartela erabili aha izateko komertzioen zerrenda duen katalogoa eskuratuko dituzte.

KORRIKAREN ATARIAN HAINBAT EKITALDI

Euskararen aldeko lasterketaren atarian, hainbat kulturekitaldi egiten ari dira han eta hemen. Martxoaren 25ean, erraterako, Euskal Herriaren Euskaraz-en 30. urteurrenaren harira egin den dokumentala ikusteko aukera izan zen Legasan. Martxoaren 27an, berriz, *Euskarazetamol* antzezlanak ikusgai izan zen Iruritan. Larunbat honetan, apirilak 2, berriz, Korrika Bestak antolatu dituzte Bertizaranan eta Malerrekan alde batetik, eta Baztanen bertzetik.

Bertizaranan eta Malerrekan, egitarau hauxe prestatu dute: 10:30ean bizikleta martxari emanen diote hasiera Bertizko aparkalekuan; 11:30ean gosaria egingen dute Legasan. Ondotik Doneztebe herria zeharkatu eta Sun-

billan bazkalduko dute. Handik Doneztebera buelta egingen dute eta 16:30ean Ekaitza ostatutik hasita trikipoteoa egingen da.

Baztanen, berriz, 10:00etan hasita, Amaiurtik Elizondora bizikleta martxa egingen dute. 14:30ean bazkaria izanen da Elizondoko Merkatu Plazan eta arratsaldean, 18:00etatik aitzinera, fanfarre bertso poteo. 22:00etan kontzertuak izanen dira Gaztetxean, Kaskezur, Ufesuak eta Errugabe taldeekin.

Bertzalde, bertzeak bertze, **Arantzan**, **Etxalarren** eta **Donezteben** Korrika Tikiak egitekoak dira, Korrika nagusiaren gisara, herrian barna lekukoa esku batetik bertzera pasatuz euskararen alde. Donezteben, apirilaren 11n goizez (10:00etan) eskolatik abiatuta egingen den Korrika Tikiak gain, Dantza Kantu Plaza ekimena ere egingen da apirilaren 9ko arratsaldean. Dantza taldea eta Musika Eskola-koak plazara aterako dira Korrikaren etorrera girtzeko. Nahi duten herritar guztiek izanen dute parte hartzeko aukera. Horrez gain, baliteke karaokea ere antolatzea.

KORRIKA BATZORDEAK

Korrikari dagokion guztia antolatzen ari direnak Korrika Batzordeak dira. Kilometroen salmenta, Korrika Laguntzailea ekimena, diru bilketa... Azken hilabeteotan horretan aritu dira Baztan, Bortziriak eta Malerrekan Korrika Batzordeak. Eta egingandakoaren balorazio positiboa egin digu Oianko Garde hiru eskualdeetako Korrika arduradunak eta AEKren Elizondoko Suinki euskaltegiko irakaslea denak: «arras kontent gaude eta Suinki euskaltegia ere arras es-

KORRIKAK APIRILAREN 11N ESKUALDEAN EGINGEN DUEN IBILBIDEA

HERRIA	ORDUA
ARTESIAGAko lepoa	07:58:10
IRURITA (Eugiko bidegurutzea)	09:43:40
GARTZAIN (N-121B/49. km)	09:54:43
ELIZONDO (N-121B/50. km)	10:01:13
ELBETE (N-121B/51. km)	10:07:43
ARIZKUN (herri sarrerako kartela)	10:33:43
ERRATZU (NA-2600/2. km)	10:49:07
ARIZKUN (Bidegurutzea)	11:27:19
ELBETE (N-121B/54. km)	11:42:16
ELIZONDO (Ikastolako parkea)	11:53:58
GARTZAIN (N-121B/49. km)	12:05:01
IRURITA (N-121B/48. km)	12:11:31
ARRAIOZ (N-121B/46. km)	12:25:31
ORONOZ (herrirako bidegurutzea)	12:43:04
OIEREGI (gasolindegiko ondoan)	12:56:04
NARBARTE (NA-1210/21. km)	13:01:55
LEGASA (NA-1210/23. km)	13:14:55
DONEZTEBE (NA-1210/24. km)	13:21:55
SUNBILLA (NA-121 A/49. km)	13:50:22
IGANTZIKO bentak	14:51:28
IGANTZI (biribilgunea)	15:03:49
LESAKA (Frain auzoa)	15:24:25
BERA (herri sarrera)	16:03:40
BERA-SARA (Lizuniaga)	16:47:52
SARA (Xikanetik aterata)	17:20:22
SENPERE (Okintegia)	18:12:22

kertua dago».

Seguruenik azken xehetasunak lotzen ariko dira orain burubelarri, Iparraldeko eta Nafarroako euskaltegi eta

gau-eskolen aldeko Korrika hau ongi atera dadin. Horretara bideratuko baititu AEK-k Korrika 17rekin bilduko dituen ekarpenak, «jakina bai-

ta eremu administratibo horietako euskaltegi eta gau-eskolek ez dutela inondik ere behar dituzten dirulaguntzak jasotzen».



Nire txanda
Iñaki ALUSTIZA

Ama

Munduan dagoen gauzarik haundiena gure ama da. Ama bezalakorik ez da. Berari esker gaude munduan, berak beti hoberena nahi du guretzat eta guk zaindu beharra dugu bera. Bai, bakoitzak dugun ama horrelakoa da, baina guztiok badugu beste ama bat, denontzat berdina eta guztienak elkartuta baino handiagoa dena, ederragoa... Ama lurra.

Berak eskura uzten digu, lurran behar dugun guzti hura. Orain Uda-berrian koloretsu jantzi, usain gozoz inguratu eta alaitasuna ematen digu.

Ama guztiak bezala, gu berarekin ongi portatzen ez bagara, haserretzen da. Batzutan, trumoi gisara, beste batzutan tximista eta guzti eta tarteka haize zakarrez. Hala ere, ama guztiak bezala, beti babesten gaitu. Beti? Beti ez gaitu babestuko. Gero eta haserreago dago (lurrikarak, tsunamiak...). Noiz jabetuko gara... Ama lurra zaindu dezagun!

Beti ez gaitu babestuko. Gero eta haserreago dago (lurrikarak, tsunamiak...). Noiz jabetuko gara... Ama lurra zain dezagun!

Ezpala

Aitor AROTZENA

Nuklearrik? Bai noski!

Lurra ikaraz dago Japoniara begira. Lurrikarak kalteak eragin ditu zentral nuklearretan eta hodei erradiaktiboaren kezka hedatu da lau haizetara. Baina aditu burutsuek atera dute bere ondorioa: errua ez da energia nuklearrarena, lurrikararena baizik! Ez dira ohartzen bi aldagaietatik bakararra kontrolatzen (?) ahal duela gizakiak. Lurrikarak, uholdeak, hurakanak kontrolpean? Nahi bai!

Nabarmentzekoak



Mikel ZABALETA
Leitzako aizkolaria

Binakako Urrezko Aizkolarien txapelketa gazte mailan irabazi ondotik, Adania aizkolarisariketa irabazi du 14 urtez behetik mailan, etorkizun handiko aizkolaria dela erakutsiz.



Itsaso FAGOAGA
Lesakarra txapeldun

Ongi ekin dio Skeet Olinpiko denboraldiari 20 urteko neskek. Apirilaren 19 eta 20an Mar-drilgo Pinton jokatuak Erregearen Kopa aisa irabazi zuen, 75 plateretatik 68 hautsita.



Jon BARBERENA
Elizondoko bertsolaria

Joan den urtean finaletik kanpo gelditu ondotik, aurten lehenbiziko finalista izan da, Berako saioan nagusitu baitzen. Apirilaren 9an Labriten jokatuak den finaleko zortzikotea erabaki da.

Atzera begira → 1999.04.08 / TTIPI-TTAPA 251. zbk



Bi txapeldun aurrez aurre

Izenburu horren pean Alkaiagako Inaxio Errandonea eta Goizuetako Asier Olai-zola pilotariak bildu genituen orain hamabi urte. Pilota enpresa handiak mutur-tuta zeuden garaia zen eta binakako bi txapelketa antolatu ziren. Inaxiok, Asegarcek antolatutako Euskal Herrikoa irabazi zuen Nagoreekin batera eta Asierrek Aspek antolatutako Espainiako Elkororekin. «Gehien gogoratzen den txapela azkena izaten da beti», aipatu zigun dagoeneko laugarren txapela lortu zuen Errandoneak. «Zalantzak uxatu eta hor aritzeko moduko pilotaria naizela ikusi da» zioen profesionalek lehen txapela jantzi zuen Olai-zola I.ak.



Argitaratzailea Titi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Anduertzeta, 12 • 31760 ETXALAR

Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@titi-ttapa

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usoa Vicente, Kulturkari SLU **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Sainzar, Kontxi Klaber, Ainhoa, Arantxa eta Maider Ansa, Asier Imaz, Arkaitz Mingegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urroz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Itxaso Arrieta, Markel Lizasoain, Eneko Mitxeo, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Iñaki Telletxea, Joanes Garcia...

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leizta, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortziritetako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2011ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria37€	Europa55€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka31€
Ipar Euskal Herria55€	Amerika eta Australia123€	Leizta15€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Euskarabideak diruz lagundutako aldizkaria



Kolaborazioak

Beloaren errebolta

Tere SAEZ (Berdintasun teknikaria)

Analisi bikaina aktibista politikoa eta jendar-te kritikaria den Naomi Wolf-ena, emakume musulmanei buruz Mendebaldean ditugun estereotipoak azpimarratzen dituena. Denak sinetsidunak, beloekin estaliak, menpekoak, exotikoak eta ixilak, irudipenezko harenetan bizi direnak, genero paper arras estuetan itxiak. Berak bezala, nik ere hauxe galtzen diot nire buruari. Non zeuden emakume horiek Tunisian eta Egipton? Lehen lerroan eta erdian zeuden, albistegietako irudietan eta Facebookeko foroetan... baita lidergoa bere bizkar hartuz ere. Erraten dutenez, protestek izan duten izaera baketsua beraiei esker izan da. Aniztasuna ere aipatzekoa da: aunitzek zapiak buruan edo erlijio kontserbadorismo bertze ezaugarriak zituzten, baina bertze batzuk lagun bat musukatu edo publikoan zigarro bat erretzearen askatasunaz gozaten zuten. Egiptoko emakumeak ez dira protestara batzen bakarrik, kultur eboluzioaren indar aitzindaria izan dira. Eta hori, neurri batean edo bertzean, mundu arabiar osoarentzat erraten ahal da. Emakumeak aldatzen direnean, dena aldatzen da eta mundu musulmaneko emakumeak errotik aldatzen ari dira. Aldaketa nabarmenena hezkuntz arlokoa da. Boterera heltzeko formakuntza jasotzen ari dira, bere amonek imajinatuko ez luketen modu batean: egunkariak publikatu, ikasle mugimenduetako aginte postuetara heldu, ikasle erakundeetarako dirua bildu edo bilerak zuzendu. Esperientziak jakin beharko genuke, emakumeak hezitzen direnean, aldaketa dator nahitaez. Jendarte komunikabideen naturak ere emakumeak protestako liderrak izaten lagundu du. Antolakuntza egitura hierarkiko batean zaila da zutik jarri eta hitza hartzea eta estandarteren irudia saihesten dute: gehienetan, megafonoa daraman mutil gazte sutsu bat izaten da. Emakumeek jendarte errealtatea bizitzeko nahiago duten modua imitatzen du Facebookek, pertsonen arteko harremanak, kontrol indibiduala eta nagusitasuna bezain garrantzitsua edo garrantzitsuagoa baitira. Eta emakumeek «gu» bat sortzeko ahalmenarako testuingurua indartzen du, bertzeen zerbitzurako lidergoan inplikatur, munduko askatasuna eta justiziaren alde. Behin eta berriz, emakumeek askatasunaren alde bere garaiko borroka egin ondotik, bere eskubideak defendatzera pasatu dira. Horregatik, Ekialde Hurbileko despotek kasik ezinezkoa izanen dute emakume hauen askatasunaren aldeko borroka geldiaraztea. Eta Wolfek dioen bezala, mota honetako liderrak babestu eta bultzatu beharko genituzke eta ez ezkiusiarena egin, pentsatuz Ekialde Hurbilean ezin direla esistitu. Beraiei buruz gehiago jakin beharko genuke, eta ez nola jantzi beharko luketen edo gisako axaleko eztabaidetan denborarik galdu.

Hauteskunde (berri?) batzuen atarian omen gaude

Juainas PAUL (Zubieta)

2011ko martxoaren erdialdea. Hauteskunde (berri?) batzuen atarian omen gaude. Ezkornauzu, ohiko ergelkerietan eroriko garela susmatzen baitut: Guztiok aldamenekoen kontra: «Gu» ez den edonoren deskalifikazioa.

Ez da hori, inolaz ere, behar dudana (zuk behar duzuna?). Botoa nori eman jakiteko ez dit deusestarako balio euro aunitzeko hitzez jantzen diren asmo handinahikoek. Argitu dezagun: eztabaida sakonak guztiz beharrezkoak dira, ez, ordea, hauteskunde giroan. Hitz eginen dugu, aisa egiten duguna baino gehiago, entzuten ikasten baldin badugu eta, batez ere, aurkaria etsai kondenagarritzat hartzen ez badugu.

Antzeko girorik eza gutzen duzu? Non? Hagitz kontent errol-datuko nintzen horrelako zerbait eskaini balukete nonbait. Hemen eta orain ez ditut parekorik ikusten.

Asmoek eta erantzukizunek osatu beharko luketen plana eza gutu beharko genuke, maila guztietan. Bai udal, bai autonomi-eremuan. Hori baino garrantzitsuagoa da, ordea, epea akitu baino lehen jaso beharko genituen

azalpenak: lortutakoak hauek izan dira, erdizka gelditu dira hau eta hori arrazoi hauek direla medio eta antzuak gertatu dira beste horiek, trabak horrelakoxeak izan baitira. Azalpen hauetan oinarritu beharko lirateke hurrengotarako hauteskundetakoak. Hori izanen zen, nire uste apalean, demokraziaren errotze sendoa, parte-hartzearen bidea.

Horren ordez ezagutzen duguna zera da, deus garbirik argitzen ez duten asmo berriek paper bustian. Eta etsaigoaren hedapen ikaragarria. Diotenez, Baztanen, esate baterako, zazpi talde aurkeztu behar omen dira, Beran auskalo... Tokian tokiko? Elkar mokoka aritze giroa sendoturik aterako da. NaBaik eman digun ikuskizuna nagusituko zaigu. Ezkerrekoek omen direnek eskuinera emanen diote kirtena, abertzaleek espainolistei... Berriro betiko atakan gaude: kalte txikien gauzatuko omen dituztenei emanen diegu, lotsaturik, bizimodua konpontzen laguntzeko balio beharko lukeen botoa.

«Argitu dezagun: eztabaida sakonak guztiz beharrezkoak dira, ez, ordea, hauteskunde giroan. Hitz eginen dugu, aisa egiten duguna baino gehiago, entzuten ikasten baldin badugu eta, batez ere, aurkaria etsai kondenagarritzat hartzen ez badugu»

Irakurleak mintzo

Joamari
Artantxuri,
berriz

Patziku Karretoko izanduak

Eskerrik asko Joamari, hire bertso libre dotore horiengatik. Pozik kontestuko diet, aurren aurren nire bi okerrak aitortuz: *Lubineko* gaizki paratu nian, eta *Oskar* ere bai, Arkaitz orde. Eta zuen jarrera noblea batere lermatuko ez lukeen beste huxkeriaren bat izatea ere ez nindukek batere harrituko. Listillo perfektua, ez baita sekula nire guzizko jendaje izandua. Gero hala diok:

1: «*hoinbeste hankasartze eta gezurrekin egin baduk liburu berria/ ederki jarri izango duk Goizuetako herria*». Bai Joamari: dendena gezur eta hankasartze hutsa duk nire liburu berria, eta ez diat batere maite Goizuetako herria. Ez eta Leitzakoa ere: besteak beste, *Errege Erreginak* lekuko. Egia eta maitasun bakarra: ni ez bezalako noble horien inbidia eta ezinerramana. Hik ordea, aita Berdabio aldekoa izatean, eta ama Leitzakoa, inor baino pozikago egon behar huke, mutikotako lagun batek musu truk bi liburu horiek merkatuan paratu izana, hirugarren pirata askoren negoziarako.

2: «*500 lagun baino gehiagontzat bazkaria: babarrunak, txistorra eta odolkia/ egiten zuen hontzarekin bazkari egokia/ ondoren nahiko bakai-*

loa, ajoarriero/ ardo ona ere bai eta jarri ñuen be-ro bero/ orain orri hau ikustea ez nien espero». Jakina, nik ere ez nitian asko espero, nire hariaren ordainetan hik egindako azio nobleak. Bes-tetik, jan edana gauza beharra duk, baina, gaur honen modan dagoen triperotza kultoak, sekula ez nek inspiratu, nahiz horren tripero ez den hiztun fina beti estimatu. Eta bazekiat ongi, tripero alfer horiek sekula ez dutela eskertuko nik barutan egindako lan ixilik.

3: «*Nik ez diet egin gaizkirikan/ ahal duanean la-gundu baizikan/ nik ez diet bota zutik sano dagoen zuhaitzikan*». Lagundu hik niri?... Oraindik apenas. Aurrera ikusiko. Lehengoan esanak askie, oroitzen Ostazuriko Maldatik sutako etxeratu berri dituan nire haritzondo zainirauli sano sanoak? Eskertu egin behar hidan isildu izana, baina, heure anaia eta koinatua testigu: herrek haundiago segitzen duk...

4: «*ez ditut esan nahi hirregatik (Leitzan) esan dizkidatenak/ niri aurrez aurre esan hik esan nahi dizkidakenak*». Hiri kararik kara esandakoak lehunduz idazten ari nauk ni. Eta eskertuko nitek hiri ere, Leitzan nitaz aditutako kontu polit horiek, niri aurrez aurre esan, edo paperean garbi paratuko bahitu. Pozik adituko bainituzke, beti bezala «*erdizka eta saiheska*» dabil-tzan horien arrazoi sendoak.

5: «*Sarats hori nik bo-*



Bota bertsoa

Garazi KONDE (Lesakako bertso eskola) • Neurria: Hamarreko Haundia

Japoniako azken lurrikararen ondorioak

Lurrikara ta tsunamia gero ura lurrari harrika sekula baino bereziago lehen zegona berezita Japoniako irla txikia Munduari garraxika hildako pila, desagertuak, etxe guztiak hautsita ta gu bitartin TTIPI-TTAPAKin etxeko sofán jarrita

Ta martxoaren hamaikatikan tsunamiaren resaka Itsasoa ta gainera zentral nuklearren enbata Fukushima mundu guztira alar-men hots ta zarata energia hain segurua omen eta zakurraren kaka berriro modan paratuko da «Nuklearrik ez» pegata

tea dela esaten duken bitartean/ ez diet adiskidetasunik nahi hire ta nere artean/ gezurrezko testiguk sartu nahi badituk tartean/ etorri, ez nauk izango apartean». Adiskide ez baduk nahi, hor konpon. Hatorrean hatorrela, ni hemen izanen nauk. Hori bai: saratsarena nola den begien bixtako, lasai, ez nauk testigu bila hasiko. Gainera, jakintzak nire iraultza finerako xedea: abokatu bati inoiz sosik eman gabe lurtzea.

Dena dela, hire bertso libreotan, nire «gezur» kontua ageri duk gailen. Zorioneko gezurra! Eta gizajoa ni! Lagun batek esaten zidak beti: gauza beharra dela aski. Es-

kerrak goizuetar finak alde aldera badakien hire eta nire berri! Mutikotan Benaiko Joakimari zenari auzoan aditua: «*Neska neska, gezurra esan bar badun, esan tzan tajuz!*». Aitasemegi guziak badakien ateraldia. Eta amaren traza dezentea duk hik, Joamari; bai gorpuzkeran, bai hizketan. Eta, batik batik, hizketako graziala horrexegatik diat nik maite Joakina. Ongi go-goan baitaukat, *Errege Erreginak* salbatzera, bakar bakarrik Artantxuko sukaldera jo nuenean ere, beste senide eta etxeko guziak baino onberago portatu zela. Etzak ahaztu ama, Joama, eta torizue bosteko bana!

Kirol
hornidurarako
zonaldea
industriarako
birkalifikatua

Fermin OTEIZA
Narbarteko bizilagun talde
baten izenean

Hirigintza Planaren arabera kirol hornidurarako aurrekusiak dauden lur eremuak industrialderako birkalifikatu nahi izan ditu Bertizaranako Udalak 2000. urtetik honat. Bizilagunok, birkalifikazio honen eraginez kaltetu-en garenak, baina ez kaltetu bakarrak, beti agertu gara birkalifikazio honen kontra, izan ere, 500 metro eskasera baitago Legasako industrialdea, industriarako okupatzeko 200.000 metro koadro lur eremua duena. Ildo honetan, ingurumenaren defentsan eta Baztan-Bidasoaldean industria eta enplegua bultzatzeko, birkalifikazio honen kontrako alegazioak aurkeztu ditu Nafarroako



IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefona. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: info@ttipi.net
Posta: **Anduetzeta, 12 31760 ETXALAR**
Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**

Alderdi Sozialistak ere Kaltetutako bizilaguno ere babesa ematen diogu PSNk bere alegazioetan adierazitakoari.

Inoiz ez gara egon eta ez gara egonen lanpostuak sortzen dituzten eta Bertizaranari balioa ematen dioten proiektuen kontra, baina ez promotoreari gogoratzen zaion lekuan, egon behar duten lekuan baizik, hau da, Legasako industrialdean.

Aldi honetan helburua handinahiagoa da. Aldez aurretik sukaldatutako plateren industria jartzeko kirolerako bideratua dagoen lur eremua birkalkifikatzeaz gain, udal industrialde berria egin nahi dalehengo N-121 errepidearen bertze aldean eta bai alde batera bai bertzerara, 10 metro edo gutxiagora etxebizitzak daude. 2004an eta 2006an aurkeztutako alde aurretik sukaldatutako plateren proiektu industrialak bertan behera gelditu ziren.

Proiektu honetan, fabrikak nabe industrial handiak izanen lituzke, produktu hauen produkzio-

rako, biltegirako eta das-taketarako, baita kongelatzeko nabe handi batzuk eta gasolindegi bat erreka ondoan. Hori osatzeko, errepidearen ondoan, Herriko Etxeak udal industrialdea sortu nahi du, proiektu berriak instalatu ahal izateko.

Herriko Etxeak birkalkifikazio honetarako eta Legasako industrialde handiaren garapena uzteko erabiltzen duen argudioa zera da, ArcelorMittalek behin eta berriz ezezkoa eman diola industriarako lurren salmentari eta hortaz, industrialde berriagitearen beharra. Iritzi publikoak ongi dakienez, gezurra da ArcelorMittalek lurrak ez dituenik saldu nahi. Gaur egun Bidasoa Plana gauzatzen ari da eta, ondorioz, lur industrial hori interesatu guziren esku egonen da.

Ez dugu atzendu behar bailara honetan Bertizko Jaurerriko Natur Parkea dagoela, Baztan-Bidasoaldeko turismoaren motore nagusia. Proiektu honetarako modu larrian kaltetutako du bailararen irudia. Horregatik, Bertizaran

egin gogo den proiektu ikustera animatzen ditugu bizilagun guziak.

Funverako gertakariez bi hitz

Koldo SAENZ (LAB)

Lehenik eta behin Baztan-Bidasoako LABetik garbi utzi nahi dugu erran nahi dugunarekin ez garelako ELAren joko dialektikoan eta eraso-erantzunen dinamikan sartuko (...). Baina ezin dena da, kritika sindikal bat gezurretan oinarritu. Funverako kasua eta Marmoles del Baztanen gertatutakoa konparatzeak ez du ez buru eta buztan. Badirudi norbait LAB kakaztu nahi duela badakielako gure lana eta borroka ezin direla zalantzan paratu eta horretarako Marmoles del Baztaneko adibidea erabiltzen du. Marmoles del Baztaneko langileak lehenengo egunetik greban egon ziren beraien lanpostuen defentsan. Nafarroako Gobernuak kaleratzeak onartu eta

egun batzuk berandua-go langileek erabaki zuten greba uztea, nahiz eta LABen iritzia bertzelakoa izan, Guk ez genien langileei eskatu grebarekin bukatzea, Funveran ELAk bai. Datu objektiboak dira.

Funverako kasura itzultita, oraindik sinistu ezinik gaude ELAk eman duen erantzuna. Badirudi txapelketa bat egin nahi dutela ia ze sindikatuk izan zituen kaleratu gehiago. Ez dugu inoiz erran ELA kontraturik egin duenik enpresarekin; bertze ez genioke ELAri eskatuko borroka hau elkarrekin egitea, baina ordura arte egindako kontratazio gehienak ELAko afiliatuei egin zaie eta LABekoei bat ere ez. Enpresari ez genion eskatu LABeko afiliaturik kontratatzea, irizpide objektiboki egitea eskatu genion apartheid sindikalik gabe.

LABetik garbi dugu etsaia zein den: enpresa. ELAren aurka ez dugu deus, kontrakoa, dinamika aunitz eraman ditugu elkarrekin eta

prestutasuna dugu bide honetatik jarraitzeko. Guk erran dugun gauza bakarra da greba bukatu zenetik idatzia atera genuen arte, enpresa LAB betatzen ari zela.

Ez dugu orain urtebete gertatu zena berriro errepikatzea nahi. Gertatu zen eta jadanik pasatu da, gu ez gaude horrat begira, orain arte enpresak LABekin egiten ari zen injustizia bat salatzen genuen.

Eskubide berdinak dituzte kaleratu zituzten 47 langileek, beraien ideologia edo afiliazio sindikala batekoa edo bertzekoa izan, eta guztiak berri lantegian baleude lanean oraindik eta kontentuago egongo ginatke denak dudarik gabe. Berri ere aipatu nahi dugu ez dugula deus lanean bueltatu direnen kontra, alderantziz, hagitik pozik gaude lanean ikustez. Beraz, ELAk dioen bezala kriterio objektiboak paratzearen alde baldin badago, ba zorionak, goazen bihartik aitzinera hori gertatu dadin denok borrokatzera.



- Eskopeten salmenta eta konponketa
- Ehiza eta arrantza goiak
- Ehiza baimenen tramitazioa

armadenda

andueza 

Paotxa Eraikina • Gorostlaga, z/g • Anaka Industrialdea
T. 943 66 72 67 - F. 943 66 71 91 • 20305 IRUN
c.andueza@euskalnet.net

KULTURA

BERTSOLARITZA → NAFARROAKO TXAPELKETAREN 40. EDIZIOA

Zortzi bertsolari joanen dira Nafarroako txapelaren bila apirilaren 9an

Iruñeko Labrit pilotalekuan jokatu da final handia

TTIPI-TTAPA

Finalerdi guztiak bukatuta, larunbat honetan zortzi, apirilaren 9an, jokatu da Nafarroako Bertsolari Txapelketaren 40. edizioaren finala. Orain arteko saioetan lortutako puntuazioaren arabera, zortzi bertsolari ariko dira Iruñeko Labrit pilotalekuan, 17:00etatik aitzinera. Lerro hauek idazterakoan, oraindik martxoaren 26an Elizondon egitekoa zen hirugarren eta azken finalaurrekoaren emaitzaren esperoan zeuden bertsolariak, finalerako txartela nork lortu zuen baieztatzeko. Lehenbiziko finalaurrekoan garraile izandako Jon Barberena (Elizondo) eta bigarrenean Leitzan nagusitu zen Estitxu Arozena (Lesaka) ziren bi finalista seguruak.

FINALERAKO SARRERAK

Bi modu daude finalerako sarrerak erosteko. Alde bate-tik, Internet bitartez, www.bertsosarrerak.eu webgunean. Eta bertzetik, Nafarroako hainbat tokitan: Kutxak Nafarroan dituen bulegoetan (Iruñea, Altsasu, Barañain, Lizarra, Azkoien, Tafalla eta Tuter), **Elizondoko** Fantxike arropa-dendan, **Leitzako** Maimur liburu-dendan eta **Lesakako** Izarra okindegian. Sarreren prezioa 18 eurokoa da, eta 12 eurokoa

16 urtetik beheitikoentzat eta Bertsozale Elkarteko bazkideentzat. Azken urteotan finalerako sarrerak lehenagotik agortu izan direnez, Bertsozale Elkarteak lehenbailehen erosteko aholkatu du.

LANA

Hau izanen da bertsolari bakoitzak finalean egin beharreko lana: zortziko haundian binaka gaia emanda hiruna bertso osatu arte; zortziko ttikian binaka ofizioka hiruna bertso osatu arte; zortziko ttikian bi punturi erantzun; sei puntuko motzean binaka ofizioka hiruna bertso osatu arte eta kartzelako lana, gaia emanda bakarka hiru bertso. Lehenbiziko bi bertsolarien arteko aldea 20 puntu baino ttikiagoa baldin bada, buruz burukoa izanen da. Hala gertatuz gero, hamarreko ttikian gaia emanda hiruna bertso bota beharko ditu bakoitzak eta kartzelako lana ere egin beharko du, gaia emanda bakarka bi bertso.

EPAILEAK ETA GAI-JARTZAILEAK

Zazpi dira txapelketa honetan bertsolarien lana puntuatzen ari diren epaileak: Saioa Mitxelena, Mikel Alzuart, Mikel Beaumont, Ekintza Landa, Josu Etxanobe, Nerea Bruño eta Gaizka Sarasola.

Gai-jartzaileak gehiago dira: Alaitz Rekondo, Fernando Anbustegi, Xabier Maia, Gorka Urtasun, Joseba Beltza, Joxema Leitza, Miren Bidarte, Nekane Elu, Oier Amiano, Rosita Anakabe, Xabier Zarraluki eta Helios del Santo.

NAFARROAKO
BERTSOLARI
TXAPELKETA

11

www.nafarroakotxapelketa.com

FINALA

APIRILAK 9
LARUNBATA
17:00etan

IRUÑEKO
LABRIT PILOTALEKUAN

Sarrerak salgai:
www.bertsosarrerak.eu

Antolatzailea:
bertsozale

Laguntzailea:
ttiipi-ttapa

2011

UDABERRI-UDA KO MODA



ORAIN DENA ERREZAGOA DA

KERATINA
tratamentuarekin
ilea errazago
leuntzen da.
Zatoz ezagutzera
edo deitu



LEHEN

nanokeratin.
SYSTEM



ORAIN

Y PELUQUERIA
YOAN
ILE APAINBERRIA

Bidasoa, 8 BERA | T. 948 63 01 77

BERRIKUNTZAK ILE-APAINKETAN




LEHEN



ORAIN

BERRIA!!!
ESTENTSIOAK
aldatuz
itxura ere
aldatzen da.
Zatoz ezagutzera
QUIKKIES
berriak



ORDUTEGIA

Astelehena, asteartea, ortzeguna, ortzirola:
09:00-17:30
Asteazkena: 15:30-19:00
Larunbata: 08:00-13:00

VENTA
PEIO
MERKATARITZA GUNEAK

www.venta-peio.com (0034) 902 210 800

Marka hoberenak

Udaberri-udako kolekzioa dagoeneko dendetan



Marka hoberenak guztientzako

Gizonezkoak | Emakumezkoak | Haurrak 0 - 14

HAURREN MODA

Kolore bizi-biziko arropak

Kolorea arropetara ekartzeko sasoi ailegatu da. Udaberria hementxe dela igartzen da umeen arropetan ere. Kolore nahasketa da nagusi denboraldi honetan. Berdea, urdina, gorria eta marroia uztartzeko garaia da.

Neguko arropa gorde eta eguraldi onari atek zabalduko dizkiogu laster. Aukera ona da dendetako eskaintzari begirada bat botatzeko, zezer erosten hasi aurretik. Tirantedun kamisetak laster jantzi ahal izanen ditugu. Beraz, beroari aurre egiteko hasi prestatzen umeen arropak.

PIRATA-GALTZAK

Kotoizkoak edo bakeroak, pirata-galtzak ezin daitezke alde batera utzi. Nesken kasuan, kamiseta luzeak gaintetik jarrita soineko itxura hartuko dute.

KOLOREA

Kolore indartsuagoak izateaz gainera, marrazkiak ere badituzte. Denboraldi honetan animalien marrazkiak ditugu nagusi. Osagarrietan ere animaliak agertuko dira han eta hemen, bai poltsetan bai zapietan.



30 marka baino gehiago, prezio guztietakoak

Bertan eskuz egindako soinekoak

Bodyak, barruko arropa, leotardoak, galtzerdiak, seaskak, oinetakoak (XTi Kids, Elite Kids)



mirentxu

Serapio Mugika, 15
IRUN
943 618 033

Ordizia, 5
ORDIZIA
943 881 273



FANTXIKE
Jame Urutia, 15 - ELIZONDO - 948 580 312
www.fantxike.com



Bularretako handietan espezializatuak, sujetoadore eta bikinietan aukera zabalak!

MARI CARMEN
ARROPA KONFEKZIOAK



Granada 21074 22 (Bilboko zentroa)
ELIZONDO - T. 948 580 663

TABERNA ZAHARRA



UDABERRI-UDAKO MODA
Gizon eta emakumeendako arropa-denda
Gortinak eta etxerako arropak
Merkatarien karrika, 11
DONEZTEBE
Tel. 948 450 007

ostargi optika
Bidasoa 8 BERA 948 630 753



GIZONEZKOEN MODA

Erraz konbinatzeko moduko arropak

Gizonezkoen arropetan, bai goiko zein beheko jantzietan kolore neutroko jantziak nagusituko dira aurtengo udaberrian eta udan

Udaberri honetan estilo guztietako bakeroak izanen ditugu dendetan zintzilik. Udarako ere, galtza labur bakeroak ikusiko ditugu. Ez dira faltako forma modernoak dituztenak baina, horiekin batera, 90eko hamarkadako estiloa bueltatuko da.

Aurreko urteetan pirata-galtzek arrakasta izan dute baina, aurtengoa, badirudi galtza laburragoak izanen direla nagusi. Galtza nahiko laxoak, erosoak eta oihal freskoekin eginak.

Alkandora eta txamarretan ere ikusiko dugu bakero oihala, baina bes-telako materialak ere topatuko ditugu, gehienak tonu grisetan. Nikien gainetik eramateko alkandora eta zira finak boladan egonen dira, azken tendentzien arabera. Larruzko jakak ere ez dira faltako dendetan. Kolore guztietako larrua ikusiko da. Udaberrian eta udan eguraldi epe-lagoa izaten bada ere, gizonezkoen arropen artean fularrak ere aurkituko ditugu dendetan; gero eta gehiago erabiltzen dira.

MARRADUN ARROPAK

Kolore bakarreko nikiak ohikoak izaten dira gizonezkoen janzkeran eta, aurtengoa ere, arropa dendetan horrelakoak ugari topatuko ditugu. Zernahi dela, kolore hotzak eta klasikoak nagusituko dira; tonu grisetan hainbat eta, tartean, xurixkak eta marroixkak bertze hainbertze. Hor-tik aparte, berdeak, urdinak, lur kolorekoak eta zuriak ikusiko dira.

Eta kolore bakarreko arropen gain, aurtengoa niki marradunak eta jertse finak eramaten dira. Marradunen artean, nahiko marra zabaleko nikiak egonen dira modan. Grisa eta zuriarekin konbinatutako kolore bi-ziagoak tartekatuko dituzte niki horiek. Estilo dotorea baina era bere-an informala da udaberri eta uda honetan nagusituko dena.

BETAURREKOAK

Garestienak ez dira beti egokienak



Betaurreko batzuk aukeratzekoan erabaki beharreko lehenengo gauza zera da: zertarako erabiliko ditugun. Erabileraren arabera, behar dugun babes-friltroa eta kristalaren kolorea zehaztuko dugu. Begietara sartzen zaigun argi-intentsitate eta erradiazio-motarekin daude lotuta biak. Betaurrekoen neurria ere kontuan hartu beharra dago. Eguzki-izpiak ez dira aurrealdetik bakarrik ailegatzeko, beraz, betaurrekoek ingurua ere estali behar du-

OINETAKO EROSOAK

Oinetako fabrikatzaileek kolore guztietako zapatila erosoak egin dituzte aurtengo udaberri eta udarako. Moda urbanoa edo hiritarra deitutakoan, marroiak, berdeak eta grisak ikusiko dira, konparaziora. Galtza laburrekin eta galtzerdi motzekin erabiltzeko moduko zapatilak dira, nahiko lasoak eta erosoak. Bestelako jantzi-osagarriei dago kienez, mota guztietarako biserrak daude merkatuan, eta gerrikoak ere topatuko ditugu beti ere, aipatutako tonu klasikoe-tan.

te kristalaren eta arma-zoiaren artean. Babes egokirik ez duten betaurrekoak erabiltzeak ikusmenen lesio edo kalteak eragin ditzakete. Betaurreko garestiak izateak ez du derri-gor erran nahi horietan di-rela babes handiena ematen dutenak. Horregatik, filtro klaseari eta betaurrekoaren neurriari erreparatzea komeni izaten da aukeraketarik egokiena egin ahal izateko.



PAUSOKA OINETAKOAK
 Filtra, derri-gor, galtza eta haurfentzako oinetakoak
 Dagoenak eta berriak • Oinetakoen kutsuak eta
 Iturlandeta, 6 • BERA • 948 625 417

OINETAKO ARROPA
 ETA OSAGARRIETAKO
 DENGORALDI BERRIA
 %50 eko deskontua
 neguko arropa
 eta oinetakoe-tan

Belzuncgui
 1928

Jaimo Urutia 44 • ELIZONDO • Tel.: 948 580 056

bixkiak
 KIROL ETA MODAKO
 arropa denda

Arretxea, 7 B2 • LESAKA • 948 638 110



Kris
ileapaindegia

Gilburduri, 14
ELIZONDO
T 948 580 025



Baldia Modkuaren Plaza
31700 ELIZONDO
T. 948 580 850

Ordutegia
Autotarrafik - Oribi aleraz
09:00 - 18:00
Larunbatuk
08:00 - 14:00
Autokorrikak
Itxita

aidur
ileapaindegia



ARRATE ESTETIKA ZENTROA

DENONTZAKO ESTETIKA PROFESIONALA

- Maria Galland dermatologic System 55€ Aurpegirako
- Derrmarroterra 50€ Aurpegirako
- Argaltzeko tratamendua 330€ 10sesio
- Tratamendu berriak!

Aukera zabala!

Intzakardi, 7 | DONEZTEBE (Nafarroa) | 948 450 286



PANPO
ileapaindegia

948 59 21 53 | Gorriti, 3 | NARBARTE



MAKILLAJEA

Larrosatik abiatuta, noranahi



Makillaje aukera zabala dago baina, joera markatuko duen kolorerik izatekotan, larrosa koloretik abiatzen dena izanen da hori. Bertzalde, 60ko hamarkadan oinarritutako joera interesgarri bat ikusi da moda pasareletan: beltzaren gainean ezarritako hori ukitu ausart batez lortutako kaki kolorearekin apaindutako begiak. Baten batek joera ausartegia dela pentsa dezake baina bizitza errealeraz errazerraz egokitzen ahal da, horiaren ordeztu gris ilunarekin osatutako gerizpe matea erabiliz betazaletan. Hartara, azaldu denaren ondotik, bekainetarantz gerizpe zuria zabaldu beharko da. Guzti horrekin, larrosa leunez margoturiko ezpainak ikusi ahal izanen dira, distira arin batekin lagunduta. Hala ere, hasieran aipatu dugun moduan, kolore larrosaren bariazioak izanen dira makillajeen oinarri. Konparazio batera, fukia ezpainetan, larrosa tonuko kolorete beroak, urdin koloreko gerizpe nabarmenduak eta larrosa koloreko pintzelkadaren bat.



GIZON ETA EMAKUMEENTZAKO

JOSUNE
ileapaindegia

Tel. 948 599 028 - Urdazubi

Bertze batzuk larrosa tonuko tendentziekin hausteko aukera egiten dute. Horren adibide dira beltza, beltz-marroia, beltz-bioleta eta beltz distiratsua. Kolore horiekin ere azken joeren erakusle izan dateke. Aholkuak aholku, urtero bezalatsu, batekin edo bertzearekin frogak egitea da hoberena eta, hartara, norberari hobekien dagokiona zer den ikusi ahal izanen da.

EMAKUMEZKOEN MODA

Konbinatzeko errazak diren arropak

Itxura dotoreagoa edo informalagoa lortzeko arropen arteko konbinazioak izanen du gakoa

Arropa fresko eta ausarta da udaberri-udan datorkiguna. Zetazko ukituek eta transparentziek garrantzia hartuko dute. Estuak baino gehiago, arropa zabalak eramanen dira aurtan, silueta markatzea ez baita bilatzen dena.

ARROPA EROSOA

Shortak eta bakero gastatuak eramanen dira aurtan, erosotasuna eta modernitatea uztartuz. Pirata galtzek arrakasta handia izaten dute udako egun beroetan. Arras eramangarriak dira, hondartza egun baterako zein karrikan eramateko; gaitetik zer arropa aukeratzen den, itxura dotoreago edo informalagoa lortuko da.

SOINEKOAK

Koloretako soineko laburrak, belauetik gorakoak daude modan. Mugimendua eskaintzen dute eta, era berean, dotorezia ere bai. Modan daude hondartzarako soineko fresko eta eraman errazak ere. Marradun kamiseta eta soinekoek arrakasta handia izaten dute urtero uda garaian, eta aurtan ere modan egonen dira. Alkandora luzeak ere arras erabilgarriak dira sasoi honetan, gerrikoarekin edo gabe; bi estilo irudikatzen ahal dira, momentuaren arabera bata edo bertzea aukeratzeko.



Lulu
38tik 64ra bitarteko neurriak
Hondarribia kalea, 15 Atzeko aldetik • IRUN
Tel. 943 616 165

KAPRITXO

- Opariak
- Bitxiak
- Nesken arropa
- Mutilen arropa

zergatik
LEITZA | 948 510 994

IPINGI
ARROPA eta OSAGARRIAK

MOMENTU BEPEZ ETA EGUNEKO JANTZI ETA OSAGARRIAK

Santiago 88 • ELIZONDO
T. 948 580 939
info@ipingi.es
www.ipingi.es

IBARDIN - BERA

Biok



OSPAKIZUNAK → KAXERNA GAZTETXEAK ANTOLATUTA

Egun osoko egitaraua prestatu dute apirilaren 9ko Gazte Egunerako

Mozorrotuta joateko eskatu dute

58. zenbaki parean tarteka moztu egingen dute bi-dea, eta trafikoa Zalaindik desbideratuko dute.

TTIPI-TTAPA

Apirilaren 9an egingen da herriko gazteak bilduko dituen Gazte Eguna. Horren harira, Kaxerna Gaztetxeak egitarau osatua prestatu du, baina aldi honetan, mozorrotzeko gonbitea egin du, eta norberak bere edalontzia ekar dezan eskatu.

09:00etan egin dute hitzordua kiroldegi parean. Diana egingen dute eta ondotik, 10:00etan, altxorraren bila abiatuko dira. 13:30ean kalejira izanen da eta 14:00etan gazte bazkaria Kaxernan. 17:00etan jolasak eta karaokea izanen dira eta 20:00etan luntxa. 21:00 aldera DJ Zurtaiarekin musika izanen da.

Txartelak apirilaren 2ra arte egonen dira salgai 10 eurotan, lkuilu, Katakua eta Errekalden.

Film bat grabatzen

Urteberri on Amona! filmaren zati batzuk grabatzeko Bera aukeratu du Telmo Esnal zuzendaria. Hala, apirilaren 4ra arte Bidasoa Karrikako

Etxebizitzen promozioa

Udal Hirigintza Planean egindako aldaketan eta egin nahi diren etxebizitzaren inguruan, hitzaldia eskaini zuen Udalak joan den astean. Suhiltzaileen parke ondoko sektorean babes ofizialeko 18 etxebizitza eta 38 libre egin nahi dira eta Agerra eta Kaxernako sektorean, 152 etxebizitza babestu eta 217 libre.

Bertso afaria

Urtero bezala, Agerra Mendi Taldearen elkartean bertso-afaria antolatu da. Apirilaren 16an egingen da, Sebastian Lizaso eta Julio Soto bertsolariarekin. Txartelak Errekalde ostatuan salgai.

Fruta jateko plana

Nafarroako Gobernuak Labiaga ikastola aukeratu du, bertze zenbaiten artean, Eskoletarako fruta plana programa lantzeko. 3 eta 6 urtekoetan fruta eta barazkiak jateko ohitura bultzatzea da helburua.



UTZITAKO ARGAZKIA

Zuhaitzaren Egunak erantzun ona izan du

Ehiza eta Arrantza Elkarteak antolatutako Zuhaitzaren Egunak arrakasta ederra izan zuen martxoaren 13an. Kasik ehun lagun hurbildu ziren Lizuniagako granja ondora, Udalak emandako 50 haritzak landatzeko asmoarekin. Ondotik, auzolanean parte hartu zutenentzat hamaiketako eskaini zen.



ARGAZKIA: TELLETXEA

90 txistulari auzoz auzo eta karriz karriz

Eskualdeko txistulariak ez ezik, Nafarroako bertze herrietatik eta Gipuzkoatik etorritako 90 bat musikari elkartu ziren martxoaren 20ko Txistulari Egunean. Bortzrietatik, Bera, Arantza, Lesaka eta, lehen aldiz, Etxalarakoak bildu ziren, baita Doneztebe eta Leitzakoak ere. Baina baziren Tafalla, Azkoi, Lizarra eta Agoitzetik hurbildutakoak ere, edota Hernani, Irun edo Pasai Donibanetik. Jose Mari Gainza eta Matias Irazoki Berako txistulari beteranoei omenaldia ere eskaini zitzaion, euren izan baitziren txistua jotzeko ohitura eta hainbat dantza mantendu zituztenak.



UTZITAKO ARGAZKIA

Herri programa aurkeztu du ezker abertzaleak

Herriaren egoeraren diagnosis egin ondotik, ezker abertzaleak Herri Programa aurkeztu du. Lanerako gogoz daudela adierazi zuen joan den asteko agerraldian.

FRUTAS VERDURAS
BRANDEIA, ILL.
FRIGORIFEROS DE BIDASOAN

BILGEGIA 948 630 102 • FAUSTINO 647 810 152
Bidasoa, 76 - atea 21-22 • 31780 BERA

LESAKA

KULTURA → «827 KILÓMETROS SIN RETORNO» DOKUMENTALA IKUSGAI

Memoria zikloaren azken filma eskainiko da ortziralean Kasinon

Frankismoaren errepresioa gaitzat hartuta ekoiztu dira pelikulak

Aitor AROTZENA

Errepresio frankistaren memoria politikoa oinarri hartuta, Eguzki Bideoak, Gerónimo de Uztariz Institutuak eta Memoriaren Bideak elkarteak elkarlanean ekoiztu eta Nafarroan herriz herri ikusgai dabilen zinema dokumental zikloa Lesakan ikusgai dugu egunotan, Onin taldearen eskutik. Azken emanaldia apirilaren 1ean, ortziral arratsaldeko 19:30ean eskainiko da Kasinon, "827 kilometros sin retorno" filmarekin. Martxoaren 18an "Prohibido recordar" eskaini zen eta 25ean, "Nos quitaron todo". Filma honen aitzinetik kolokioa ere izan zen, bertan ageri diren testigantzen artean Pedro Lanz lesakarrarena ere azaltzen baita.

Fagoagatarrak bikain

Martxoaren 19an eta 20an jokatu zen Madrilgo Pinton Skeet Olinpikoko Espainiako Erregearren Kopa. Azken urteetako ohiturari eutsiz,



ARGAZKIA: FOTO TELLETXEA

Gaztainondoak landatu dituzte Itsaszelaletako ehiztariek

Itsaszelaletako ehiztari koadrilak gaztainondoak landatu zituen martxoaren 12-13ko asteburuan. Lerro hauen bitartez, udalaren eta Nafarroako Gobernuako Ingurumen departamentuaren laguntza eskertu dute ehiztariek.

Itsaso Fagoagak ez zuen areriorik izan emakumezkoen artean eta txapelkun suertatu zen, 75 plateretik 68 hautsita. Berak duen Espainiako errekorretik bi platerera gelditu zen.

Gizasemeen artean, beriz, sei onenak biltzen zituen finalean sartzea lortu zuen Antonio Javier Fagoaga, Itsasoren aitak. Finalean sartu ziren berte bertz tiralariak Espainiako selekzioko ki-deak ziren, baina halere, horietako bat giblean uztea lortu zuen Antonio Javierrek, 125 platereta-

tik 117 hautsita eta sailkapen orokorrean bosgarren izan zen.

Itsaso Fagoagak Nafarroako txapelketa jokatu du apirilaren 3an Valdorban eta hurrengo asteburuan, apirilaren 9an eta 10ean, Espainiako txapelketa jokatu du Granadan.

Topaketa teknologikoak

Cederna-Garalur elkarteak Alkaigan duen bulegoan topaketa teknologikoak eginen dira apirilaren 14ean, enpresei eguneroko kudeake-

tan lagungarri izanen zaizkienguneak eta tresnak emate aldera. 09:30etik 11:00etara *Ziurtagiri digitala eta sinadura digitala* ikastaroa emanen da eta 11:30etik 13:00etara *Faktura elektronikoa eta agirien kudeaketa*. Informazioa: 696 539810 (Irene) edo www.cederna.es-en.

Nafarroako konkistaz liburua

Apirilaren 1ean, *Konkista 500 urte* liburuaren bigarren edizioaren aurkezpena eginen da 18:30ean liburutegian.



Pertsonaia

Lorea TELLETXEA

Brontzea lortu du Espainiako igeriketa egokitu txapelketan

Nafarroako ANFAS taldean aritzen den Lorea Telletxea Lizasoain igerilariak brontzezko domina lortu zuen otsailaren 17tik 20ra Cadizko San Fernandon jokatu zen Espainiako taldekako igeriketa egokitutako txapelketan.

Iruñean bizi den arren, aita lesakarra eta ama Gaztelukoa ditu 23 urteko Lorea Telletxeak eta asteburu gehienetan Lesakan ikusten ahal dugu. Urte aunitz daramazki igeriketan, «zortzi bat bai bederen», baina haxe izan da bere lehen domina, «aitzinerak begira igerian segitzeko animoa» ematen diona.

Nafarroako ANFASetik zazpi igerilari joan ziren Espainiako txapelketara. Lorea Telletxea bosgarren izan zen 50 metro tximeleta eran eta hirugarren postua eskuratu zuen 50 metro libretan, brontzezko domina golkoratu.

XATURETXEA
ZAZPI
JATETXEA
T: 948 637 260 - LESAKA

IRU BIDE
Entregia - Asaltu
Baserriak, 3^{er} Lesaka
Tel: 948 637 127

BOZZ-AID
LANTZARITZA
Baserriak, 3^{er} Lesaka
Tel: 948 637 127

USOA
Nekazari kooperatiba
Tel. eta Faxa: 948 63 52 14 • ETXALAR

- Bertan egindako pentsuak, bertze markak eta ekologikoak
- Organiak - Burdin tresnak
- Insektizidak - Edariak - Haziak
- Botiak (errezetarekin)

Etkez eteko banaketa egiten da Kalefakzioa eta ibigailuendako gasolioa

KIROLA → ETXALARTIK PORTUGALERA

Xabier Ariztegi aizkolaria Portugalen izan da Timbersports txapelketan

Lehenengo kanporaketan parte hartu du *Santxinek*

Irune eta Itsaso

Martxoaren 12an bigarren aldiz Timbersports txapelketan parte hartu zuen Xabier Ariztegi *Santxinek*. Bi kanporaketatik lehenbizikoan parte hartzea tokatu zitzaion Portugalgo Battalha herrian. Eskualdetik lau partaide joan ziren: Donato eta Patxi Larretxea, Felix Etxeberria eta bera, Xabier Ariztegi. Bertze kanporaketa jokatzeko dago oraindik eta bi kanporaketen artean puntuazioaren arabera lehenbiziko hamarrak pasako dira finalera.

Sei proba ditu txapelketa honek: aizkorarekin hiru modalitatetan moztu: zutik, etzanda eta altueran; lagun bakarreko arpanarekin trontzan eta motozerra ttikia eta prototipoarekin altueran moztu. Ea zortea duen eta lehengo urtean bezala finalera ailegatzen den!

ETXAURIKO HARRIA

Igandehonetan, apirilak 3, jokatu da Etxauriko harri baldarraren txapelketa, eta han izanen da *Santxin*. 12:30ean hasiko da saioa Etxaurin.

Korrika herrian

Udalak eta Altxatak iaz bezala, Korrikari lagunduko diote. Euskara Batzordeak ere kilometro erdi bat erosiz laguntzeko asmoa du. Horretarako nahi duenak 10 euroko aportazioa egin dezake batzordeko edozeinengana hurbilduz.

Altxataren batzar orokorra

Urteko batzar orokorra egingen du Altxata Kultur Elkarteak apirilaren 2an, 18:00etan, Kultur Etxean. Batzar honetan joan den urteko kontuak azalduko dira eta aurten go ekitaldien plangintza ren berri ere emanen da.

Usoa kooperatibaren urteko batzarra

Urteko batzar orokorra egingen du Usoa Kooperatibak Kultur Etxean apirilaren 16an, 20:00-



ARGAZKIAK: ARANTXA GAÑAN Goian, ezkerretik hasita, Patxi Larretxea, Xabier Ariztegi, Felix Etxeberria eta Donato Larretxea. Eskuinean, *Santxin*.

etan. Ondotik La Basquen afaria izanen da.

Larraburuko batzar orokorra

Martxoaren 13an egingen zen Larraburuko batzar orokorra. 30 lagun inguru bildu ziren eta joan den urteko kontuak onartu ondotik, 2010eko ekintzetaz solastu eta 2011ko ekitaldien plangintza azaldu zuten. Junta ere berritu zuten: Javier Irizarri eta Jose Javier Zubietta atera eta Anabel Goienetxe eta Juan Antonio Berrueta sartu dira.

MAGRA TXAPELKETA

Azken asteburuetan magra txapelketa jokatu da Larraburuan. Partxisean Pakita Danboriena eta Kandida Elizalde izan dira txapeldunak eta musean, berriz, Santiago Mitxeltorena eta Javier Indaburu.



ARGAZKIA: GARAZI REMON

Sagardotegira irteera

Martxoaren 19an, herriko gazteek irteera egin zuten Hernaniko Itxas-Buru sagardotegira. 46 lagun joan ziren eta giro ederrean pasatu zuten eguna.

saroha
geotekia oinotegia
17.000 entsegar 25 bajo 1948 63 08 99
94700 berriplazaren www.sarobe.net

artopak · maindireak
mantak · nordikoak
toallak · kortinak
alfonbrak
Goya
Altoan, 5 · Tel: 948 630 083

KIRALI
Altoan 1 · BBA
Tfno: 948 631 446

SOBEKO
FRAN AIZOA - LESAKA
Tfno: 948 637 626

IGANTZI

TXIRRINDULARITZA PROBA → APIRILAREN 10EAN

Herrian hasi eta Piedadeko gainean bukatuko da Bidasoaldeko Saria

Piedadeko gaina hiru aldiz igo beharko dute

TTIPI-TTAPA

Dagoeneko aitzineratuak daude apirilaren 10ean, 10:00etan, korrituko den Bidasoaldeko I. Saria antolatzeako lanak. Biltoki Elkarteak biziaketa taldea ari da xehetasun guztiak lotzen. Izan ere, maila horretako probak konplikazio haundi samarrak ditu eta segurtasun aldetik ere konplexua da antolaketa.

Ibilbidea ere erabakia dago. Inguruko probetan klasikoak izan den mendea aterako dute

hiru aldiz (Piedadeko gaina) baina berrikuntza Nabazko gaina izanen da. Bere gogortasunagatik jende aunitz hurbiltzea espero da. Hau izanen da ibilbidea: Igantzitik Berrizauneraino neutralizatua > Bera > Lesaka > Piedadeko gaina > Igantzi > Sunbilla > Berrizaun (itzuli hau bi aldiz) eta azken itzulixka Berrizaun > Lesaka > Nabazko Gaina > Lesaka > Etxalarko Benta > Berrizaun > Igantzi > Piedadeko Gaina (helmuga). Guztira 105 kilometro inguruko bidea osatuko dute txirrindulariek eta helmugara 12:50 aldera iristea espero da. Jakina denez, Euskadiko Txirrindularitza Federazioak antolatzen



UTZITAKO ARGAZIAK

Txirrindulariek ibilbide hau egin beharko dute apirilaren 10eko proban.

duen Lehendakari txapelketaren barruan sartua dago proba eta 23 urtez azpiko txirrindulariak izanen dira. Piedadeko gainera lehenbiziko postuetan ailegatzen direnetako batzuk hurrengo urteetan profesionaletan ikusiko ditugu seguruenik.

Baratzea eskolan

Proiektu berri bat lanean diote eskolan: baratzea. Iaz lur eremua eskatu zioten Udalarari eta aurten guraso, irakasle eta ikasleek egingen dute lana: guraso boluntario batzuen artean baratzeke pareta altxatu, lur beltza eta gorotza ekarri eta lurtean bota zuten. Eta ikasle eta irakasleek lurra aitzurrarekin landu, gorotza zabaldu eta baratzeari itxura eman diote: bidaxkak egin,

loreak paratu, mugak zehaztu, pareta margotu, ureztatze sistemajarieta landareak landatu.

Aurten, lehenbiziko urtea denez, barazki guzti paratzeko asmoa dute: letxugak, azenarioak eta tipulak. Helburua ikasle bakoitzak barazki bat etxera eramatea edo jantokian bazkaltzen dutenek bertara eramatea da. Baina horren gainera, xede nagusiak landareen mundua hurbiletik ezagutzea, errespetu ekologikoa lantzea, baratze batean lan egingen ikastea eta landare baten bizitzaren gorabeheren berri izatea dira.

Udaberriko bestak

Udaberriko Bestak ahalik eta osatuenak izan daitezten, burubelarrari lanean ari da azken aldian Euskara Batzordea.

Egitarau zehatza hurrengo alean emanen dugu, baina aitzinetik, badira kontuan hartzeko zenbait ohar. Apirilaren 17arekin egingen da bigarren eskuko produktuen merkatua herritarrek borondatez emandako puskekin egingen da, baina merkatua behar bezala antolatzeko, bakoitzak zer emanen duen aitzinetik jakinarazteko eskatu dute antolatzailerak. Apirilaren 9rako erran beharko da.

BERTSO SAIOA

Apirilaren 15ean Biltoki elkartearen egingen den bertso afarira joan nahi duenak elkartearen eman beharko du izena. Aste-bete lehenagotik itxiko da apuntatzeko epea eta aipatu, Julen Zelaieta eta Ander Fuentes Iturri izanen direla bertsolariak.



LAN ESKAINTZA

Bortziriako Euskara Mankomunitatearen, lanaldi murriztuan eta behin-behinean arituko den **administrari laguntzailea** kontratatzeko hautaketa prozesua

ESKAERAK:

- Eskakerak **apirilaren 20ko 12:00ak** baino lehen aurkeztu behar dira, beheko helbidean.
- Deialdia eta gainerako xehetasun guztiak buruzko informazioa eskuratzeko **deitu beheko telefonora, edo idatzi beheko e-postara.**

Arantzan, 2011ko martxoaren 15ean
Mankomunitateko lehendakaria, Ainara Maia Almandotz

Bortziriako Euskara Mankomunitatea
Telefonoa: 948634125, E-posta: euskara@bortziriak.org
Helbidea: Herriko Plaza 7, 31790 ARANTZA
www.bortziriak.org

LEGARRA

- EGUNKARIAK
- ALDIZKARIAK
- LIBURUAK
- OPARIAK
- TABAKOA

- FOTOKOPIAK
- ENKUADERNAZIOAK
- PLASTIFIKAZIOAK
- FAX PUBLIKOA

TESTU LIBURUAK ENKARGUZ

Tfnoa./Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 • LESAKA



harategia

Bertako produktua

Etegarra, 3 - BERA

Teli/Faxa: 948 630 088

OSPAKIZUNAK → INAUTERIEN ONDOTIK MOZORRO BESTA

Apirilaren 9rako urteroko besta prestatu dute Mozorro Zuriek

Herri kirol erakustaldia, bertsolariekin otordua eta dantzaldia izanen dira

Nerea ALTZURI

Inauteriek segitzen dute... Urtero bezala, errematerako, aldi honetan ere Mozorro Besta antolatu dute Mozorro Zuriek. Egia erran, urte batzuk badira ospakizun hau egiten dela. Garai batean Mozorro ibili zirenak eta oraingoak biltzea da xede. Mozorro Zuriek betidanik inauterien antolatzaile izan dira eta garaik aldatu baldin badira ere, herriko inauterietako pertsonaia Mozorroa da (xuria eta beltza). Urte-urte, gehiago edo guttiago taldea bat biltzen da. Erraten denez, behin ezkondata ez da Mozorro ateratzen... eta ez ezkondata ere, behin adin batera ailegatzen, normalean, ez dira

Mozorro Zuri ateratzen... Batez ere, lehen-goak eta oraingoak biltzeko intentzioz sortu zen Mozorro Besta ospakizun gisa sustraitu da dagoeneko.

Aurtengoa apirilaren 9an izanen da eta bertsolariak nor izanen diren garbi ez badugu ere (Nafarroako Bertsolari txapelketako finala egun horretan baita), herri kirol saioa frontoian eta otordua Aterpen eginen dira armonia eta giro ederrean. Musikariek ere ez da faltako Herriko Etxeko gorapean.

Medikuaren oharra

Aranztar eta igantziar guztiei ohar hau bidali nahi izan die orain Leitzara joan den M^a Jesus medikuak: «Denekin egotea ezinezkoa izan denez, hitz hauekin nire agurra bidali nahi dizuet. Eskerrik asko urte hauetan jaso duan bero eta hurbiltasunagatik. Oso eroso eta gustora sentitu naiz zuren artean. Besarkada handi bat eta beti arte!»



ARGAZKIA: AMAIA APEZETXEA

Herriko txistulariak Beran

la ehun txistulari bildu ziren joan den martxoaren 20an Beran. Egia erran, ederra izan zen goiza (aranztarrak ez baitziren bazkaltzen gelditu). Eguraldia lagun, bertakoak nahiz eskualdekoak ez ziren txistulariak taldeka banatu ziren auzoz-auzo txistu kalejirak egiteko. Inaxio, Patxi, Etxalarko txistulariak eta herriko ttuntunlariak llekueta eta Suspeltiki auzoetan ibili ziren. Etxe batean hameketako ederra prestatu zuten xahututako indarrak berreskuratzeko. Ondotik, txistulari guzirik herrian elkartu ziren. Herriko txistulariek Berako hainbat ospakizunetan egiten duten ibilbidea eginez, txistu doinuekin elizako atarira ailegatu ziren. Eskaileratan, argazki jendetsua egin ostean, elizan sartu eta Josu Goiak organuari buruzko azalpenak eman zituen. Ondotik, Nafarroako organuetan erromantikoetan onena kontsideratua den elizako organuarekin pieza batzuk jo zituzten. Arantzatik parte hartu zuten txistularien izenean, zorionak Berako txistulariei; Inaxio, Patxi eta Etxalarko txistulariei plazer bat izan zen beurekin jotzea; eta eskerrak aunitz baita hameketako goxoa eman zuten etxekoei ere, hain harrera ona egiteagatik.

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 - BERA

ZUBIONDO
Jatetxea
Wagardotegia Jatetxea
Alasta karrika
BERA NAFARROA
Tel: 948 625 474

ZOANSA
SEAT
VW
HYUNDAI
Audi
MARKA GUZIEK KONPONKETA
Banaria, 2 - Alkaiaga Industrialdea
LESAKA (samera Beratik)
Tel: 948 625 555 - Faxa: 948 625 505

Lentara
Banantzen
Mertzen
Jantzitokian
Puzten dituzte
kafetegoria
Beneke plaza 10 30770 Lesaka
T. 948 627 514

BERA
Zere inguruak klase guzietako insektuz
(xomorro, zinoera, armiarna, kukuxu...)
eta erratoi xagutzar garbitu nahi baduzu,
dituz Termite eta Pipen tratamenduak
GOIEKO Industria Garbitasun Produktuak
Tel: 948 625 557 • Zelaia, 42 A • BERA

SUNBILLA

TEKNOLOGIA BERRIA → UDAL BERRIAK INTERNETEN

www.sunbilla.com web orria estreinatu du Udalak

Udal berriak, argazkiak eta bertze hainbat kontu zintzilikatu dituzte

TTIPI-TTAPA

Udalak ere Interneteko saltoa egin du eta atari berria estreina-tu du herritar eta bisitari guztientzako: www.sunbilla.com. Elizondoko Eskiz Informatika Zerbitzuak egin dio diseinua eta martxo hasieratik dago martxan. Udalar 1.534 euro kosta zaio aipatutako web-gune hori egitea.

Hainbat zerbitzu eskaintzen ditu Udalaren Interneteko orrialdeak bi hizkuntzetan, euskaraz eta gaztelaniaz: herriari buruzko datuak bideo eta guzti, lehengo eta gaur egungo argazkiak, turismo alorreko kontuak, berriak, herrian dauden zerbitzuak eta erakundeak –tarte-an, Ulibeltzak Elkarte-ari buruzko informazio osatua-, folklorea, iradokizunak egiteko aukera, udaleko berriak... Hain zuzen, Udalaren atalean, agiri interesgarriak eskura daitezke: antolamendua, aktak, aurrekontuak, ordenantzak, bertzelako dokumentuak...



ARGAZKIA: ESKOLA

Eskolako ateraldiak

Eskolatik atera eta hainbat irteera egiten ari dira azken bi aste hauetan eskolako neska-mutikoak. Martxoaren 22an, erraterako, Malerreko bertze eskolakoekin batera, Haur Hezkuntzakoak eta Lehen Hezkuntzako lehenbiziko zikloko ikasleak Donostiara joan ziren: 41 gaztetxo Zientziaren Kutxagunera eta Txikiparkera joan ziren. Bigarren eta hirugarren zikloko 18 ikasle, berriz, Bilbora joan ziren: Guggenheim museoa ikustera lehenbizi –argazkia– eta ondotik, EITBren egoitza bisitatzer. Eguraldiak lagunduz gero, XIX. mende bukaera-koa den Bizkaiko Zubia ikustera ere joatekoak ziren. Aste honetan, bertzalde, laugarren eta bosgarren mailako 11 ikasle Irunberri aldean ibiliko dira. Astelehenean joan ziren, eta ortziralerara arte, apirilak 1, ingelesa lantzen ariko dira.

Korrika

Euskararen aldeko lasterketarekin bat eginenez, Korrikaren ibilbideko bi kilometro erosi dira. Antrotokiko gazteek bat erosi dute eta Udala-

ren eta Ulibeltzak Elkar-tearen artean bertzea. Gazteek N-121Ako 49. kilometroan hartuko dute lekukoa, 13:50 alde-ra, eta Udalak eta Ulibeltzak 13:55 inguruan.

Etxauriko Harria

Igande honetan, apirilak 3, jokatu da Etxauriko harri baldarraren txapelketa, eta han izanen da Unai Bertiz. 12:30ean hasiko da Etxaurin.

Alberto RETEGI
abokatu
abokatu
© 948 630 763 - Alzate, 17 - BERA

ANTZUZELAI
ZINTARRIAK • ADOKINAK • ZOLAK
Tel. 948 631 317 • Fax: 631 587
Irungo errep. BERA
www.antzuzelai.com
info@antzuzelai.com
Antzinaideak, angeluak, oma antzinkoak, leihoak, atak, arkuak, pilareak, tximiniak, etxizak, moldurak, zokaloak, hilariak, marrazkiak

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontrabutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESAKA: Siltirio, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Fax: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Fax: 948 133 713

PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaia
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA
- Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

TURISMOA → BIDASOKO BIDE BERDEA

Bertizarana eta Baztango zatiko Bide Berdearen proiektua aurkeztu dute

Partzuergoak egitasmoaren berri eman die udalei

TTIPI-TTAPA

Bertziko Turismo Partzuergoak Bertizarana eta Baztango udalei euren eremuei dagokien bide berdearen proiektua aurkeztu die. Lana Nafarroako Gobernuak ordaindu eta Gestión Ambiental de Viveros y Repoblaciones de Navarra erakundeak egin du.

1957an utzi zion trenak ibiltzeari eta orduan egiten zuen ibilbidearen

zati batzuk desagertu diren arren, proiektu honetan jatorrizko ibilbidearen zati bat berreskuratu da eta orain arte landu ez den berrikuntza bat dago: Bertizaranaren trenaren tunel bat eta Baztanen zubi bat berreskuratzea proposatu da. Milioi euro kostako da, hondatuak dauden zatiak egokitu, bertze batzuk ireki, ibai bazterretatik pasatzen diren lan bereziak egin eta aipatutako elementuak berreskuratu eta seinalizatzeko. Hurrengo pausua, Espainiako Landa eta Itsas Ingurumen Ministeriotik finantziazioa lortze-



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

'Euskaraz Blai Udalekuak' eginen dira Arantzan eta Beintzan

Arantza Aterpeak eta Beintzako Orbela aterpeak *Euskaraz Blai Euskarazko Udalekuak* kanpaina landuko dute aurten ere. Hala adierazi zuten martxoaren 16an Bertizko Turismo Partzuergoaren egoitzan egindako aurkezpenean Izaskun Gofñi Partzuergoko kudeatzaileak, Janire Uzkiaga egitasmoaren koordinatzaileak, Orbela albergeko Mikel Albisuk eta Aterpeko Joseba Zugarramurdik. Nafarroako Gobernuarekin orain arte egin duten bezala, bi aterpeek kanpaina bera eskaintzeko konpromisoa hartu dute eta ekainaren 27tik irailaren 3ra Lehen Hezkuntzako 8-12 urte arteko eta DBHko 13-15 urte arteko 900 ikaslerendako lekua eskainko dute. 6 eguneko eta 5 gaueko egonaldietan 10 aste pasatuko dituzte aterpe bakoitzean. Asteleko prezioa 180 eurokoa izanen da. Bertiz Partzuergoak antolatu du aurten kanpaina eta haren bidez egin behar da matrikulazioa, apirilaren 8ra bitarte: www.consorciobertiz.org-en, udalekuak@consorciobertiz.org-en edo astelehenetik ortziralera 08:30etik 15:00etara 948 592323ra deituz.

ko behar den PSISA tramitatzea izanen da. Pausu hau ibilbide osoarekin egiten da, hau da, Endarlatsatik Elizondoraino. Partzuergoa Eurovelo proiektuaren bidez lan-tzen ari da Doneztebe-

Endarlatsa zatia. Zati honen proiektua geldituta dago, Nafarroako Herri-lan Sailak baimena eman behar baitu N121-A Alkaiagan gurutzatzeko aurkeztu zaion hirugarren proposamenari. Bi-

degurutze hori garrantzitsua da ibilbidearen oinezkoentzako jarraipena bermatzen baitu. Beraz, PSISA hasteko finantziario lortzeko proposamen honen baimenaren zain dago Partzuergoa.

TURISMOA → PLAZAOLAKO TRENBIDEA

Uitziko tunelaren argiztapena inauguratzean gertatua salatu dute Leitzak eta Larraunek

EHNEK pankarta hedatzean Foru Polizia oldartu zazio

TTIPI-TTAPA

Martxoaren 16an egin zen Plazaolako Natur Bidean Uitziko tunelaren instalazio elektrikoaren inaugurazio ofiziala, Miguel Sanz Nafarroako presidentea, turismo sai-

leko arduradunak, Partzuergoko kideak eta Larraun, Lekunberri eta Leitzako udal ordezkariak eta bertze hainbat agintari bertan zirela. EHNE sindikatua ere elkarretaratzea egiten saiatu zen *EHNEk nabarmetzen du Abeltzaintzak tuneletik ateratzeko beharra duela* zioen pankartarekin. Agintariei abeltzaintzarik gabe ez dagoela landa garapenik ezta bizitza kaliterik ere jakinaraztea

zen asmoa. Pankarta hedatu bezain laster, ordeak, Foru Polizia pankarta kendu eta elkarretaratzea disolbatzen saiatu ziren.

Hori ikusita, Jose Mari Astiz Larraungo eta Xabier Zabalo Leitzako alkateak elkarretatuengana joan eta Foru Poliziaren arduradunekin hitz egiten saiatu ziren, deus ere hortu gabe. Ondorioz, ekitaldi ofizialek alde egin zuten: «gure jokabide honen arrazoia bat eta ba-

karra izan da, gure eskualdeko herritarrek eta bereziki kinka larrian, desagertzeko zorian dauden abeltzain eta nekazarien adierazpen askatasunaren alde egitea». Horrez gain, nekazariei eta abeltzainei dei egin diete udaletara hurbil daitezzen, «elkarrekin, gure ahalbideen arabera, egoera latz honi irtenbideren bat aurkitzen saiatzeko prestutasun osoa baitugu». Maiatzean eginen den Uitziko

tunelaren irekierara ere gonbidatu dituzte.

UITZIKO TUNELA

Proiektuaren barne dagoen Iruña-Irurtzun tar-teakenduta, Uitziko tunela izan da Plazaolako bide berdea osatu ahal izateko azken oztopoa, Irurtzun eta Gipuzkoako muga artean. Tunelak 2.680 metro ditu eta argiztapenerako 1.391.908,82 euro inbertitu dira, 835.000 euro Gobernuak emanak.

DONEZTEBE

UDALA → 2011KO DIRU SARRERAK ETA IRTEERAK

3,4 milioi euro inguruko aurrekontua izanen du Udalak aurten

Proiektu nagusia futbol zelaiaren lehenbiziko fasea egitea izanen da

TTIPI-TTAPA

3.369.030 euroko aurrekontua onartu du Udalak urte honi begira. Kopuru horretatik zatirik haundiena futbol zelaiaren lehenbiziko fasea eraikitze bideratuko du, 1.266.000 euro, hain zuzen.

Eguneko Zentroaren bigarren faseako, bertalde, 370.000 euro erabiliko dira. Lehenbiziko fasea joan den urtean egin zen, eta bertzeak bertze, zulaketa lanak eta euri uren eta ur zikinaren instalazioak egin zituzten, baita zola eta egitura jarri ere. Bigarren zati honetan, horri segida ematea izanen da helburua.

Osasun zentro berria

Osasun zentro berria egiteko asmoarekin aitzinera egingez, astelehen honetan, martxoak 28, biltzekoak ziren Udala eta Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua gaiari buruz solasteko. Azken honek osasun etxe berriaren behin betiko proiektua azaltzeko gonbidatu zuen Udala. Aipatu, Nafarroako Gobernuak bere gain hartuko dituela osa-

sun zentro berria eraikitze lanen gastuak.

Ludoteka zerbitzua

Udaletik jakinarazi dutenez, joan den urtean bezala, aurten ere ludoteka zerbitzua paratuko da martxan udan, zehazki, uztaileko bigarren hamabortzaldian eta abuztu osoan. Aitzinerago zabalduko dute izena emateko epea.

50 lagun Xabierrera

Erantzun ederra izan zuen martxoaren 12an Erreka Kirol Elkarteak Xabierrera joateko antolatutako autobusak. Bete egin zen, eta 50 lagun animatu ziren. Goizean goiz abiatu ziren herritik, 05:00etan, eta Iruñean gelditu ziren. Handik Xabierrera bidea oinez egin zuten. Arratsaldean Doneztebera bueltatu ziren. Eguraldiak ez zuen sobera lagundu, baina errandutenez, kontent bueltatu ziren.

Erreka Berria Txapelketako finalaren atarian

Martxoaren 18an jokatuko zuten Errekako pilotarietako finalerdia Galdakao (Bizkaia) Uharteren kontra, baina finalaren atarian gelditu ziren, hiru partidetatik bakarra irabazi zutelako. Jubenilen mailako lehia irabazi zuten Errekakoek eta kadeteen eta seniorren mailakoak galdu.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

15 lagunek akitu dute Baztan-Bidasoaldeko III. Enplegu Tailerra

Baztan-Bidasoan mendekotasuna duten pertsonen zuzendutako arreta-zerbitzuen inguruko hirugarren Enplegu Tailerrari bukaera eman zitzaion martxoaren 18an Donezteben. 15 lagunek hartu dute parte eta denetara 900 ordu egin dituzte 14 emakume eta gizaseme bakarrak, sei hilabetetan: hiru hilabete preskakuntza teorikorako eman dituzte eta bertze hiru hilabete praktikak egiten zonaldeko hainbat egoitzatan. Cederna-Garalur elkarteak kudeatu duen enplegu-tailerra finantzatzeko, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak 157.655,70 euro paratu ditu, eta ekimenean parte hartu duten Berako, Lesakako, Etxalarko, Doneztebeko eta Baztango Udalek 18.000 euro (3.600 euro udal bakoitzak). Bukarera ekitaldian, bertzeak bertze, Luis Garate Jimenez Cederna Garalur elkartearen presidentea, Miguel San Miguel Doneztebeko alkatea, Jose Luis Ruiz Ciruelos Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren zuzendari-gerentea eta Edurne Garro tailerraren zuzendariak parte hartu zuten, baita Bera, Lesaka, Baztan eta Doneztebeko udal ordezkariak ere, eta zonaldean mendekotasuna duten pertsonak jasotzen dituzten egoitza eta zentroetako ordezkariak ere bai. Aipatzekoa da, 2008-2011 urteen artean tailerretan hasi diren 45 pertsonetatik 44k ikastaroak akitu dituztela eta orain arte %80 inguruk arlo horretan lana aurkitu duela. Orain akitu den promozio honek ere lan-munduan tokia egiteko itxaropena du, Baztan-Bidasoaldean biztanleriaren zahartze-tasak nabarmen egin baitu goiti, eta 65 urtetik goitiko biztanleria %21etik goitiko baita. Nafarroan, orokorrean, aldiz, %17koa da. Horren ondorioz, martxoaren 18ko ekitaldian adierazi dutenez, mendekotasuna duten pertsonen zainketa-ekin lotura duten zerbitzu gehiago eta kalitate handiagokoak behar dira zonaldean, batez ere emakumea lan-merkatuan txertatzen ari dela kontuan hartuta. 2010eko irailean, Baztan-Bidasoaldean 238 lagun ari ziren sektore horretan lanean.

ESKUBALOIA

Eskubaloian, Erreka A taldeak bi partida irabazi ditu segidan Txapelkunen Taldean. Lehendabizikoa etxean Cantolaguaren kontra eta bigarrena Barañaingo Lagunak taldearen aurka. Hiru jokalarik ga-

rantzitsu joan dira taldetik aurten: Ibai Marizkurrena eta Javi del Villar, Beti Onak taldera eta Pascual Bertiz Anaitasunara. Hutsune hauek nabariak dira Errekan baina halere, denboraldi polita ari da egiten Dani Urrozen taldea.

Bertalde, aipatu, Niko Mindegiak Espainiako Selektioarekin partida ofizialean debuta egin duela. Bi partida jokatu dituzte Kroaziaren kontra, eta Niko titular izan da bietan. Minutu aunitz jokatzeak aukera izan du.

F. LANCHAS
Akutadoreak eta berriztatzaileak
Parket eta parket flotatzailerak
jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

PPSOE,
Euskal
Telebista
digitala
Nafarroan
orain!
Berria erosi taldea

AISIALDIA → AZPIEGITURAK

Parke berria erabiltzeko moduan egonen da laster

Belarra hazi bitartean ez da komeni sartzea

Iñaki TELLETXEA

Igerilekuko obrak zirela eta, herriko parkea tokiz mugitzea beharrezkoa izan zen. Joan den urtean langabezian zeuden bi lagun aritu ziren jolas parkea lekuz aldatzen. Egun hauetan eman zaio amaiera lan

honi parkeko lurra berdinu eta hazia botaz. Orain komenigarria izan litzateke bertan inor ez sartzea belarra atera bitartean. Beraz, abudo izanen dugu eguraldi ederrarekin herriko parkean gozatzeko aukera.

Sagardotegira irteera

Urtero bezala, aurten ere autobusa anto-



ARGAZKIA: IÑAKI TELLETXEA

Toki berrian ederki gelditu da parkea.

latu da sagardotegi batera bazkaltzera joateko. Ateraldia larunbat honetan, apirilak 2, izanen da Astigarragako Alorrenea sagardotegira. Herriko Ostatuan izena eman duten guztiak plazan bildu beharko dute 12:30ean.

Korrikarekin bat eginez

Donamariarrek bat egin dute bertze urte batez ere Korrikaren edizioarekin. Udalak eta herriko gazteek kilometro bana hartu dute. Kilometro hauek 902.a eta

903.a dira eta Sunbilla-ko Iruribietako bidegurutze inguruan egonen dira. Bertatik apirilaren 11n 13:30ean pasako da Korrika. Beraz, ea herriko jendea animatzen den euskararen alde laster pixka bat egi-tera.

ZERGALAN 
aholkularitza

Sartu zaitetz gure WEB ORRIAN
AURREKONTU interesgarriak
EZ DUZU izenik eman behar!!!

Zuen negozioen paper guztietaz arduratzen gara:
kontabilitatea, zergak, langileak, eraikuntzaren formakuntza, ...

Bertako jendea zuei laguntzeko prest!!!

www.zergalan.es

Baztanberri Plaza, 6 - 31700 ELIZONDO (NA)
Tel. 948 581 300 - Faxa. 948 580 648

Eliza kalea, 22 - 31740 DONEZTEBE (NA)
Tel. 948 450 395 - Faxa. 948 451 304

info@zergalan.es

ITUREN

OSTALARITZA → HERRIKO OSTATUA

Herrian interesaturik ez dagoenez, ostatua hartzeko deia kanpora zabalduko du Udalak

Hilabeteko prezioa 350 eurokoa izanenda, BEZA kontuan hartu gabe

Arkaitz MINDEGIA

Urteetan zabalik egon ondotik, aurten go inauteriak pasatuta itxi zituen ateak Herriko Ostatuak. Geroztik, halaxe egon da. Udalak horri irtenbidea emateko, errentan hartzeko deialdia zabaldu zuen herritarren artean. Baina epearen barruan, ez zen herriko inor aurkeztu eta hortaz, herritik kanpo deialdi zabalagoa egi-

tea erabaki du Udalak. Lerro hauek idazterakoan, oraindik argitaratu gabea zen deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean, baina argitaratzen denean irekiko da eskaintzak aurkezteko epea.

BALDINTZAK

Herritarrei egindako deialdian eta kanpora begira eginen denean ere baldintzak berdinak izanen dira. Hilabeteko prezioa 350 eurotan (BEZA kontuan hartu gabe) finkatu dute Herriko Etxean, eta errentaren iraupena bortz urterako izanen da. Gerora, gehiago luzatzeko aukera ere izanen da.



ARGAZKIA: AINARA MINDEGIA

Iturendarrek Korrikarekin bat egingen dute

Apirilaren 11n pasako da Korrikaren lekukoa eskualdean barna, eta bertze edizioetan bezala, aurten ere kilometroa erosi du Ibintza Kultur Taldeak. Sunbilla-tik Igantziko Bentetarako bidean, ibilbideko 907. kilometroa egokitu zaió Ibin-tzari, 14:20 aldera hartuko du lekukoa. Eskolan, bertzalde, Korrika Ttikia egingen dute. Argazkia duela lau urte Korrika Iturendik pasatu zenekoa da.

ERATSUN

HEZKUNTZA → ESKOLAREN ETORKIZUNA ZALANTZAN

Eskola itxi egingen dutela erantzun du Nafarroako Gobernuak

Hezkuntzako arduradunekin bildu ondotik eman dute erantzuna

TTIPI-TTAPA

Heldu den ikasturtean eskola ixteko asmoari eutsi egingen dio Nafa-

arroako Gobernuak Hezkuntza Sailak. Halaxe adierazi digu Pedro Des-karga alkateak. Iragarri bezala, martxoaren 15ean bilera egin zuten Hezkuntza Departamentuko ordezkariak eta alkateak, idazkariak eta gurasoak. 2011/2012 ikasturtean lau ikasle izanen diren

arren (Izarne eta Haritz Mariezkurrena Lasaga, Jasone Mindegia Benito eta Naroa Retegi Eskudero), gerora gehiago izanen direla eta hurrengo ikasturtean salbuespena egiteko eskatu zieten herritarrek Gobernuko arduradunei, baina alferrik. Alkateak kontatu digunez,

«15 egunen buruan zerbait esanen zigutela aipatu ziguten». Baina lehenagotik ailegatu da erantzuna: «martxoaren 22an jakinarazi zioten irakasleari eskola itxi nahituta», dio Deskar-gak.

«Penarekin» hartu du Gobernuaren asmoa alkateak, eta zerbait egi-

ten saiatuko direla ere azaldu digu, «nahiz eta zaila izan den».

Eskola itxiz gero, Doneztebera joan behar dute 3 urtetik aurrerako neska-mutikoei. Joateko autobusa 08:15ean izanen lukete eta arratsaldean, 17:00 baino beranduago bueltatuko liriteke etxera.

LANA → LANGABEAK KONTRATATU DITU UDALAK

Eva Elizalde herritarra izanen da Gazteguneko langilea

Horrez gain, bertze bi langile ariko dira errotan lanean

Fermin ETXEKOLONEA

Gaztegunerako eta errotarako langileak kontratatu ditu Udalak, Nafarroako Gobernuak langabeak hartzeko eman duen dirulaguntzari esker.

15 lagunek eman zuten izena errotan lanean aritzeko eta horietatik bi izan dira aukeratuak: lan horretan urteak daramatzen eta errotako martxa aski ongi ezagutzen duen Maria-jexux Petrikorena eta herrian bizi den Edorta Arana.

Gaztegunerako, berriz, sei lagun agertu ziren interesatuak Udalak egindako deialdian, eta horien artean Eva Elizalde herritarrari eman zaio ardura.

Bi kasuetan, langileen aukeraketak joan den astean egin ziren, martxoaren 24an.

Ander Fuentes bertsotan

Aurten laugarren aldiz ari da Nafarroako Bertsolari Txapelketan parte hartzen Ander Fuentes *Itturri*. Lehenbiziko fasea gainditu eta finalurrekoetarako txartela ere eskuratu zuen, eta martxoaren 19an Leitzan jokatuako bigarren finalurrekoan izan zen. Estitxu Arozena eta Xabier Terrerosen ondotik, hirugarren gelditu zen. Lerro hauek idazterakoan, oraindik ez zen segurua apirilaren 9ko finalean izanen den ala ez, Elizondoko hirugarren finalurrekoa jokatu gabea baitzen, eta puntuazioaren arabera erabakitzekoa zelako finalera nor pasako den.



ARGAZKIA: IZASKUN ZUBIALDE

18,4 hektarea erre ditu suteak, batez ere larre eta sasiak

Martxoaren 14ko goizaldean izandako sutea nahita eragindakoa izan denik ez dute baztertu, eta gertatutakoa ikertzen ari da orain Foru Polizia. Goizaldean, Xabier Bendoiro okinak eman zuen abisua, lanera zihoala sua ikusi zuenean, eta Ezekiel Loiarrek ezkilak jo orduko, berehala mugitu zen jendea. Oronozko suhiltzaileak ere etorri ziren, eta denen artean, bi orduren buruan lortu zen sua itzaltzea. 18,4 hektarea erre ziren guztira: zazpi hektarea ete erdi larre, lau hektarea eta erdi sasi eta 6,4 hektarea pinu. Halere, pinuen beheitiko aldea bakarrik erre zen.



ARGAZKIAK: EDORTA AMURUA

Bertako Haziaren Jaia egin da aurten bigarren aldiz

Antolatzaileak gustura gelditu dira aurten bigarren urtez egin den Bertako Haziaren Jaia izan duen erantzunarekin. Martxoaren 19an egin zen eta goiz-arratsaldean izan ziren ekitaldiak: goizean hitzaldiak izan ziren errotan. Alde batetik, Nafarroako Hazi Sareko Ester Monterok barietate lokalak mantentzearen garrantziaz hitz egin zuen eta bestetik, Kristiñek Nekazaritza Ekologikoa eta Biodinamikoa izan zituen hizpide. Eguerdian 35 bat lagun bildu ziren Estalpean egindako bazkarian. Teoria eta praktika bat eginez, «bazkari konszientea» egin zuten. Arratsaldean, hazi trukaketa eta talo jatea izan zen eta afaldu ondotik, musika afrikarra egiten duen Enekora taldearekin kontzertua. Antolatzaileek balorazio ona egin badute ere, herriko jende gehiagok parte-hartzea gustatuko litzaiekeela adierazi dute. Akaso hurrengo urtean izanen da, errepikatzeko asmoa dutela esan baitute.



BEINTZA-LABAIEN

UDALA → ESKATUTAKOAREN %100 LORTU DU

300.000 euroko dirulaguntza jasoko du Udalak Aizkoraren Museoa egiteko

Espainiako eta Nafarroako gobernuek emanen dute dirulaguntza

TTIPI-TTAPA

Berri onak ailegatu dira herrira. Azken urteotan horren esperoan egon ondotik, Aizkoraren Museoa egiteko Udalak eskatua zuen dirulaguntza %100ean hartuko du: Espainiako eta Nafarroako gobernuek sinatu duten hitzarmenarekin, 300.000 euro jasoko ditu Udalak, eskatutako guztia. 150.000 euro Espainiatik etorriko dira eta beste erdia Nafarroatik.

LEHENGO ERROTAN

Beintza eta Labaienen artean dagoen lehengo errotan egin nahi da Aizkoraren Museoa. Proiektua egina dago eta azken hiruzpatalu urteotan dirulaguntzaren zain egon da Herriko Etxea.

Zolaberritze lanak

Beintza eta Labaiengo deposituetarako bi-deetan zati bat zolaberritzeko %70eko dirulaguntza izanen du Udalak. Horrez gain, kanposantu berriaren ondokit pasatzen den bi-dearen zolaberritze lanak ere %70ean subentzionatuak izanen dira. Luzaro gabe egingen da lanak esleitzeko enkantea.

Hauteskundeetan bost hautagai

Biztanle bakarrarengatik, baina maiatzaren 22ko hauteskundeetan bost hautagai izanen dira herrian. Orain arte zazpi hautagai izan dira udaletxean, baina 250 biztanletik beherako herrietan bostera murrizten da udal ordezkaritza. 249 lagun zituen herriak biztanleria kalkulatu zen azken neurketan eta hortaz, bost hautagai izanen ditu hauteskunde hauetan. Gaur egun, ordea, 250 biztanletik gora ditu: 252.



ARGAZKIAK ETA TESTUA: BEINTZA-LABAIEN, SALDIAS ETA ERATSUNGO ESKOLAK

Hiru herrietako ikasleek elkarrekin ospatu dituzte inauteriak

Martxoaren 4an, ostegunarekin, Eratsun, Saldias eta Beintza-Labaiengo eskoletako ikasleak hiru herrietan barna ibili ziren kantatzen eta dantzatzen, Joana Estanga trikitilari zutela. Eta lerro hauen bidez, eskerrak eman nahi izan dizkiete eskolakoek Joanari. Inauterien seinale, denak pirataz mozturatu ziren, irakasleak barne.

Lehenengo buelta, **Eratsunen** egin zuten eta argazki batzuk atera ondotik, Eratsungo gurasoek hamaiketako bat prestatu zieten. Segidan, **Saldias**era bidea hartu zuten eta hemen, zenbait karrketan barna ibilitakoan, beste hamaiketakoa eduki zuten. Geroago, eskolan deskantsatu, gehiago jan eta **Beintza-Labaienera** abiatu ziren. Han Labaiengo herriari itzulia eman eta etxe batean indarrak berritzeko jatekoa eskaini zieten. Gero, berriz, herriko eskolako parkean jolastu eta bazkari-berenduan, tortilla, txistorra, marrubiak eta patatak jan zituzten. Akitzeko, argazki batzuk atera eta bakoitza bere etxera joan zen. Egun ederra atera zen argazkietan ageri den pirata kua-drillarentzat.

616 513 497

PITI ESKABAZIOAK

GARRAIOAK, ESKABAZIOAK, KONTENEDOREEN ZERBITZUAK

Kontenedoreak: 5 m³ - 7 m³ - 12 m³ - 30 m³

Mota guztietako hondakinak biltzen dira

Tel/Fax: 948 45 13 89
C/ Amezitia, 1 • 31740 Doneztebe (Nafarroa)

BEINTZAKO OSTATUA

☎ 948 45 00 14

web: www.ostatuak.com

ORBELA

J. RAMOS

zolak akutzilatu eta barnizatzen ditut

Sakelekoa: 637 836 023 - LESAKA

AZPIEGITURAK → HARIRIK GABEKO INTERNET

WiFi zerbitzua Aste Santurako martxan egotea espero du Udalak

Udalak Bilboko Iritel enpresari esleitu dizkio lanak

TTIPI-TTAPA

Haririk gabe Internetarako sarbidea eskaintzen duen WiFi zerbitzua paratuko du Udalak herri inguruan. Udaltxeko teilatuan eta bertze bizpahiru tokitan antenak jarriko dira horretarako, eta herrigunean ez ezik, herri sarrerako bidegurutzean dauden etxeetara ere ailegatuko da Interneten seinalea.

Lan hauen ardurak, Bilboko Iritel enpresari esleitu dio Udalak eta azken orduko aldaketarik ezean, joan den astean hastekoa zen horretan. Hilabete eta erdi-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Laster izanen du herriak Internetera WiFirekin konektatzeko aukera.

ko epea izanen du dena akitzeko eta «Aste Santurako martxan egonen dela» espero du Alberto San Migel alkateak.

DIRULAGUNTZA

WiFi sarea instalatzeko

dirulaguntza ere hartuko du Udalak, aurrekontuaren %70ekoa, hain zuzen. 15.000 euro inguru jasoko dira.

Alkateak azaldu digunez, behin instalazioa egindakoa, teknikoek

bilera orokorra egingen dute interesatu guztiekin eta seinalea ongi hartzeko zer egin behar den esplikatu zaie. Etxe bakoitzean antena tiki bat paratzea da seinale ona izateko

teknikoek aholkatzen dutena.

Hirigintza Planarekin aitzinera

Joan den urteko maiatz aldera hasi zen Udalak Hirigintza Plan berria prestatzen, bereziki etxebizitzak non egin daitezkeen antolatzeko. Eta ia urtebetera, lehenbiziko onespena eman dio planari. Alegazioak aurkezteko epea ere zabalik egon da berri arte, eta herriarrek zenbait alegazio aurkeztu dituztela kontatu digu alkateak. Orain, horiek aztertu, Nafarroako Gobernura bidali eta haren erantzunaren esperoan egon beharko da betin betiko onespena eman ahal izateko.

edredoi fundak
albomozak
edredoi nordikoak
ohe estalkiak
maindireak
mantelak
kuxinak
toailak

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea
Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

UDABERRI-UDAKO KOLEKZIO BERRIA

LEGASA

KORRIKA 17 → APIRILAREN 11N PASAKO DA

Korrikako kilometroa erosi dute gazteek euskararen alde lasterka egiteko

Korrikaren lekukoa eguerdi aldera pasako da

TTIPI-TTAPA

Apirilaren 11n, eguerdi aldera Korrika Legasatik pasako da. Eta beti bezala, gazteek kilometroa erosi dute euskararen aldeko lasterketa honetan parte hartzeko. NA-1210 errepideko 23. kilometroa egokitu zaie gazteei eta lerro hauen bidez, herritar guztiei gazteek erosi duten kilometro horretan korrika egiteko gonbidapena luzatu nahi zaie. Beraz, denak



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Herriko gazteak duela lau urteko Korrikan.

gonbituak zaudete Korrikan parte hartzera.

KORRIKA KULTURALA

Martxoaren 25ean, es-

kolako gimnasioan, Euskal Herrian Euskaraz-en dokumentalaren emanaldia izan zen, *Izan, egin eta eragin* dei-

turikoa. Ekitaldi hau Mallerrekako korrikaren bazordealk antolatu zuten, Korrika Kulturalaren barrenean.

Inkesta etxeetan

2011 herri programa ekimenaren barruan, galdetegi ttiki bat pasatu dute etxe guztietan, herritar guztien kezka eta iritziak biltzeko asmoz. Inkesta bete eta Kontzejuko buzoian utzi behar zen martxoaren 21erako.

Emakumearen Eguna

Bertze urtetan bezala, martxoaren 8an emakumearen eguna zela eta, herriko emakumeek afaria egin zuten martxoaren 12an Arotxajate txean. Talde ederra elkartu ziren eta oso ongi ospatu zuten eguna.

NARBARTE

OSTALARITZA → BERRIZ IREKITA

Bi hilabeteren ondotik Herriko Ostatuak berriz zabaldu ditu ateak

Joan den asteburuaz geroztik dago zabalik

TTIPI-TTAPA

Herria pozik dago berriz ere, bizitasun ederra hartu baitu. Bi hilabete itxita egon on-

dotik, berriz ireki dute Herriko Ostata. Joan den larunbatean, martxoak 26, zabaldu zituen ateak eta hasiera eman zion ziklo berriri.

HIRU ESKAINTZA

Kontzejua ostata errentan emateko lehiaketa martxo hasie-

ran egin zuen, eta deialdi horretara hiru eskaintza aurkeztu ziren. Batekin eta bertzeekin hitz egin ondotik, azkenean, Iruñeko Victoriari eman zaio ostatuaren ardura.

UTZITAKO ARGAZKIAK

Herriko Ostata irekita pozik daude herritarrak.



AZPIEGITURAK → FRONTOIA ATZO ETA GAUR

Gerra aurretik hasi ziren frontoi berria egiteko asmoekin bueltaka

Hasierako asmoa frontisa Plazenea aldera egitea zen

Fernando ETXEBERRIA

Duela hilabete batzuk hainbat obra egin zituen Udalak frontoian, zola berrituz eta ezkerreko paretara moldatuz. Baina urteetan atzera eginez, seguruenik herritar gehienek ez dute jakinen frontoiaren historia zein den, eta interesgarria litzateke kontatzea.

XVII. mendean herri erdian plaza bat zegoen, gaztainondo batzuekin. Batzarrak edo udaletxe-ko bilerak ere han egiten ziren, etxe bakoitzeko ordezkari batekin. Kanpainen bidez iragarri ohi ziren bilerak, eta joatea garrantzitsua izaten zen, norbaitek huts eginez gero, ez baitzuen protestatzeko eskubiderik. Gerora zuhaitzak moztu

eta frontis ttiki bat eraiki zen Palazzo edo Hamarrendegia etxeari itsatsita (etxe honetan hamarrenak kobratzen ziren). 18 metro luzeko eta hiru metroko altuerako ezkerreko paretara ere izaten zen. Zorua lurrezkoa zuen, eta hortaz, euria eginez gero, pilotan jokatzea ezinezkoa izaten zen. Gainera, 90 zentimetroko desnibela zuen.

Udalak 1945ean erabaki zuen frontoi berria egitea, nahiz eta 20 urte lehenagotik ere bazegoen frontoia egiteko aurreproiektua. Frontisa, ordea, beste aldera pentsatua omen zen, Plazenea aldera. Edonola ere, gerra ondotik, 1945ean, hasi ziren berriz frontoia-rekin bueltaka. Horretarako, etxearen jabearekin harremanetan jarri behar izan zen, Ezkurrako jauntxoaren ondorengoekin edo herriaren jabeak kontsideratuak zirenekin, hain zuzen. Etxea Karitateko



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Goiko argazkian herriko plaza zaharra ageri da eta behekoan oraingo frontoia.

mojen kongregazioarena zen, eta Ladron de Zegama familiako azken oinordekoa bizi zen han.

ALKATEAREN ESKUTITZA

Alkatea eskutitz «goxo» batekin zuzendu zitzaion Nagusiari: «Andre agurgarri hori: herriko gazteriak, horietatik gehienak 1936ko uztailaren 18an borrokan ibilitako boluntarioak eta gure aberria eta erlijioaren alde gurasoak eta etxea utzi zituztenak, itzuli egin dira, garaipena eskuratuta. Gure lurretik horda marxisten doktrina faltsuak kanporatzeko euren bizitza arriskuan jarri duten gazte hauek, orain arte Nafarroako herri honetan mantendu diren dibertsio on eta sano horiekin jarraitu nahi dute eta helburu horrekin, frontoia berreraikitze eskatu diote Udalari, pilotan jokatuz, herri kristau batekoak ez diren dantzak, tabernak eta abarsaiheteko». Aldi berean, bi lei-

ho kentzeko ere eskatu zitzaion, paretari hamar metro gehiagoko altuera emateko. Horren ordeztan, bi leiho egingen lirateke gorago eta eskuin aldean balkoi bat. Gastua Udalak ordainduko luke.

Nagusiak bere asmoa etxea saltzea zela adierazi zuen, eta horrelako obrak egitea ez zuela beharrezkoa ikusten.

Alkateak apaizaren gana ere jo zuen, baina alferrik. Berriz mojarangana joan zen, aldi honetan argumentu eraginkorretan. Tratua ez onartzekotan, etxetik bi metrora beste paretara bat eraiki beste aukerarik ez zegoela esan zion, eta hori bi-entzat kaltegarria izanen litzatekeela: etxea bistaririk gabe geldituko litzatekeelako eta Udalak paretara berria egin beharko lukeelako.

Eskutitzak bere eragina izan zuen. Nagusiaren erantzunaren agiririk ez dagoen arren, aurreikusitako obra egin ze-

lako, 48.113,50 pezeta-ko aurrekontuarekin. 1980an, berriz, estalpea egin zitzaion. Hasierako asmoa teilatua transparentea izatea zen, baina ezinezkoa izan zen garesti ateratzen zelako (6.418.001 pezeta).

Argiztapena eta sarea paratzeko saiakerak ez ziren aurrera atera, ez zelako ez Nafarroatik eta ez estatutik ere dirulaguntzarik lortu.

Etxerako egurra

Alkateak ohar bidez jakinarazi duenez, eskatzen duten guztiei etxerako egurra emanen zaie. Baina zuhaitzak dauden tokirako sarbidea txarra dela iritzita, egurra ateratzen aritzen den enpresa bat kontratatu du lan hori egiteko. Bi aukera proposatu dira, lotea pistara ateratzea 50 euro ordainduz edo etxeraino eramateko 100 eurotan. Urte akaberan kobratuko da. Martxoaren 25ean akitzekoa zen izena emateko epea.

LARRALDEK
eta
LINDOURRENBORDA
Baztan Bidasoako sagardotegiak

Dolarea
Txotx denboraldia irekia
Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA | Tolleria auzoa - LEKAROZ | 948 452121 - 626 494317
LINDOURRENBORDA | Nabaz auzoa - LESAKA | 948 637212

GOIZUETA

TURISMOA → BIZIBIZIKI ENPRESAK AURKEZTUTAKO PLAN ESTRATEGIKOAREN ARABERA

Kirola, natura edo kulturarekin lotutako turismoa bultzatu nahi da

Artikutzako erreferentzia herriak izan beharko lukeela ere ageri da planean

TTIPI-TTAPA

Herrianturismoa nondik bidera daitekeen jakiteko Bizibiziki enpresak egindako Turismo Plan Estrategikoa aurkeztu zen martxoaren 22an. Gaur egun, Goizueta Nafarroako eskaintza turistikoetatik kanpo kokatzen bada ere, bi elementu ageri dira Nafarroako elementu turistiko bezala, inauteririk eta pilotaren ibilbidea. Orain artean, turista eskalduna hurbiltzen da gehienbat, familia edo bikotean etortzen dena autoz, natur turismoaren hartzaileak neurri handi batean. Herrianturismoa gastu gutxi egiten dute eta denbora gutxi ematen dute, jateko edo lotarako eskaintza txikia delako.

Ekoturismoarako aukera bikaina eskaintzen duela eta, herritik Artikutzarako sarrera egokitu eta ezagutarazi egin beharko lukeela ageri da Planean, baita Artikutzaren erreferentzialtasuna Goizuetak izatea ere, Plazaolan sartzeko aukera eta eskualde mailan lan egiteko aukera ere hor daude, beti kultura, kirola, natura edo hezkuntzarekin lotutako turismoarekin.

Udalak, turismoaren garapena ekonomiko osagarri bezala ulertzen du, bizi kalitateko elementu positibotzat. Garapenerako esparrua eskualdea (Mendialdea Mankomunitatea) eta zehazki Plazaola izanen da eta inguruko beste herri batzuekin ere, Arantza edo Hernanirekin esaterako, ekintza batzuk elkarrekin egiteko aukera aztertu nahi da. Gipuzkoarekiko gertutasuna erelatu behar litzateke, horretarako turismo estilo propioa garatuz eta inguruko herriekiko eskaintza osagarriak eskainiz.



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

Ehun landare aldatu dituzte Zuhaitzaren Egunean

Martxoaren 23an, eguraldi bikaina lagun, egin zen Zuhaitzaren Eguna. Eskolatik 60 bat neska-mutiko, irakasle eta gurasoekin batera Tximizketa mendira, Alduntzin borda ingurura hurbildu ziren. Bertan, Udalak emandako ehun zuhaitz aldatu zituzten, tulipero motakoak.



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

4 hektarea erre ditu suteak

Martxoaren 11ko gauean piztutako suteak 4 hektarea pinu erre zituen. Argazkian ageri den tokian izan zen sutea, eta inguruan dagoen Dominazpikoen bordako behiak ere gutxigatik libratu ziren. Hasiera batean herriko suhiltzaileak hasi ziren lanean, baina haize zakarra zebilenez, laguntza eskatu behar izan zuten eta Iruña, Altsasu eta Oronozkoak ere hurbildu ziren. Larunbateko 03:00etarako kontrolatuztat eman zuten sutea.

Eskalerak igotzea... ez da oztopo!

Behetik

igogailu bereziak
aizki bereziak...

Aforgo-biki, 14 • T. 943 368 781 • 671 073 888
www.behetik.com

GIZARTEA → URTEKO BATZARRA EGIN DA

Bi bazkide gehiago sartu dira San Roke elkartean

Urteko kuota bost euro igotzea erabaki da

Kontxi KLABER

San Roke elkarteko bazkideek martxoaren 12an izan zuten urteko bilera, eta hainbat gai izan zituzten hizpide. Aurreko aktairakurri eta onartzeaz gain, 2010eko balantzea egin eta onartu zen eta 2011ko kuotez ere hitz egin zen. Erabakitakoaren arabera, urteko kuota bost euroko igoera izango du. Gisa berean, aipatu, orain arteko zuzendaritzak beste urtebetean jarraituko duela karguan.

Bazkideei dagokienez, Joxe Antoniok bere alaba Ainhoari pasa-

tu dio giltza eta Maitane eta Miren izango dira aurtengo bazkide berriak.

Tabakoaren gaia ere atera zen mahai gainera: erre ala ez erre bozkatu zen, eta oso nabarmena izan zen erretzearen aldeko botoa.

Gaur egun elkarteak dituen 63 bazkideetatik 45 lagun azaldu ziren bilerara eta bukatu bezain laster, jendea eseri egin zen, Josebak prestatutako afaria dastatzeko.

Kontzejua zabalik

Martxoaren 16an ireki zuten Kontzejuko taberna berriro, 15 eguneko oporraldiaren ondoren. Jendea zain zegoen, izan ere, herria motz gelditzen da hau itxita badago.



ARGAZKIA: KONTXI KLABER

Haurrentzat koltxonetak Ganbaran

Aspalditik aurreikusia zegoen gurasoen aldetik Ganbaran elkartzen diren umeentzat psikomotrizitateko materiala erostea, koltxonetak eta abar. Nahi baino denbora gehiago luzatu bada ere, azkenean lau koltxoneta erosi dira. Honetarako Euskara zerbitzuak 600 euro eman ditu eta bi urtetan Olentzerotan etxez-etxe jasotako dirua ere gastatu da. 1.400euroko aurrekontua osatu arterakoa Udalak jarri du.



GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L.

24 ORDUKO ZERBITZUA
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

BERA | SAN JOSE BEILATOKIA | 948 63 74 04
DONEZTEBE | SAN PEDRO BEILATOKIA | 948 63 74 04
ELIZONDO | FUNERARIA BAZTAN | 948 58 19 59
ELIZONDO | BAZTANDARRA BEILATOKIA | 948 58 19 59
LEITZA | LEITZAKO BEILATOKIA | 948 63 74 04
LESAKA | LESAKAKO BEILATOKIA | 948 63 74 04

| TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTI ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA
| LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

LEITZA

UDALA → EKONOMIA KONTUAK

Azken lau urteotan %27 murriztu da Udalaren zorra

2007tik 2011ra 824.292 euro amortizatu dira

TTIPI-TTAPA

Datu ekonomiko baimenak eman ditu Udalak: 2007az geroztik, %27,17 murriztu da udal zorra, eta 2007an 3.032.862 euroko zorra izatetik, 2011n 2.208.570 eurokoa izatera pasatu da. Xabier Zabalo alkateak jakinarazi duenez, 2010. urtea 683.148,15 euroko saldo positiboarekin edo diruzaintzako geldikinarekin itxi zen. Eta kopuru horretatik 467.980 euro aurten eginen diren hainbat inbertsionarako bideratuko da. Gainerako 215.568 euroak, berriz, badaezpada ere gordeko dira, azken momentuan sor daitezkeen gastuei aurre egiteko, hain zuzen.

INBERTSIO NAGUSIAK

467.980 euroekin egin beharreko inbertsioak hauek izanen dira: gasturik nagusia (200.000 euro) **Ibero** erosteko izanen da. **Leitzalarrerako errepidean eskoilera** bat egite-

ko 62.000 euro gastatuko dira. **Txoko inguru-ruan parkea** erosteko 30.000 euro bideratuko dira eta parkea egiteko 20.000 euro.

Amazabal auzoa berriro urbanizatzeko proiektuarentzat 27.000 euro gordeko dira. 2012an egin beharrekoa den Amazabal auzoaren urbanizazioaren proiektuak 850.000 euro aurrekontua du eta %70eko laguntza ere jasoko du.

Ur potabilizatzaile berriaren proiekturako beste 27.000 euro bideratuko dira. 2012an egitekoa da edateko ura aurretik tratatzeko proiektua eta 770.000 euro kostako da. Inbertsio honek %80ko subentzia izanen du.

Bestalde, udaletxeko bi terrazetan 18 **eguzki plaka** jartzeko 25.000 euro erabiliko dira; **Ate-kabeltzeko** lehenengo solairuan konponketak egiteko 23.000 euro; **Ola-berriko zubia** konponitzeko 20.000 euro, eta **plazako harategia** turismo puntu bilakatzeko 6.000 euro.

UDALA «POZIK»

Datu ekonomikoak ikusita, balorazio positiboa egin digu alkateak: «eguneroko lana zorrotasunean eta poltsikoari begiratutakoa izan da. Honek zailtasunak ekarri dizkigu, baina emaitza ikusita oso pozik gaude». Gaineratu digunez,



ARGAZKIA: HITZA

Emakumeak prekarietateari planto egiteko prest

Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira, hainbat ekitaldi egin dira martxoan: kontzentrazioa, performace herritarra, zinema, tailerrak... Martxoaren 12an, esaterako, argazkian ageri den *Leitzaldeko emakumeen errealitatea*, 8 bizipenetan saioa egin zuten, eta eskualdeko emakumeek euren esperientziak kontatu zituzten.



ARGAZKIA: OSASUNA FUNDAZIOA

Udalak eta Osasuna Fundazioak hitzarmena sinatu dute

Martxoaren 17an, futbol eskolakoek Osasunako Asier Riesgo atezainaren eta Oier Sanjurjo jokariaren bisita jaso zuten. Horiekin batera, Osasuna Fundazioko Juan Pascual eta Diego Makirriain, Lacturale enpresako Maite Azpiroz, Xabier Zabalo alkatea eta futbol eskolako Unai eta Xabier Sagastibeltza entrenatzaileak izan ziren. Eguna, Fundazioaren eta Udalaren arteko hitzarmenaren sinadura ekitaldiarekin hasi zen. Gero, futbol eskolako ikasleek hainbat galdera egin zituzten Sanjurjo eta Riesgori eta hauek erantzuteaz gain, autografoak sinatu zituzten.

«Udalean sartu ginenean, egoera ez zela egokiena ikusi genuen. Hori aldatu egin behar zela erabaki genuen, eta ondorioz, ekonomikoa izan da lau urteetan baldintzatu duen egoera». Egoerak hala behartuta, «bideratu nahi genituen inbertsio batzuk» aurrera atera ezinik gelditu direla aitortu digu Zabalok, «dirulaguntzak lortu ez direlako. Egindako inbertsio handi guztiak dirulaguntzarekin egin dira».

Etorkizunean, «ahal den neurrian hurrengo lau urteetan ere bide honetatik jarraitu behar dela» dio alkateak, «egungo

krisiak eragin handia baitu Udalaren egoeran».

Oialdeko bazkide

Oialde Elkarte gastronomikoan bazkide berriak sartzeko epea zabalik dago eta apirilaren 10era arte izanen da aukera. Izena emateko 676 297980era deitu (Amaia).

Edertasun tailerra

Doako edertasun tailerra eskainiko da apirilaren 6an eta 13an Batzar Aretoan. Automakillajea eta azalaren oinarriko zainketa landuko dira bi egunetan 11:00etan, 15:30etan eta 18:00etan. Apuntatzeko: 686

045321era (Marta) edo zubifarma@gmail.com.

Eskalada ikastaroa

Abian da 10 eta 16 urte artekoentzako eskalada ikastaroa. Martxoaren 26an egin zen lehen saioa, eta apirilaren 2, 9 eta 16an eta maiatzaren 7an gehiago eginen dira, (09:00- 13:00). Izenematea eta informazioa, kiroldegian (948510719).

Etxauriko Harria

Igandean, apirilak 3, jokatu da Etxauriko harri baldarraren txapelketa, eta hain zuzen da Josex Urrutia. 12:30ean hasiko da saioa.



ATXILOKETA → FRANTZIako POLIZIAK ATXILOTU DU

Joneren familiari elkartasuna adierazteko hainbat ekimen egin dira

Leitza eta Aresoko herritarrak kezka agertu dute atxiloketarekin

Juana Mari SAIZAR

ETAko kide izatea leporatuta, martxoaren 21ean Frantziako Poliziak Jone Lozano gaztea atxilotu zuen Indre departamentuko errepide kontrol batean. Eta goerotik, hainbat izan dira herrian zein Leitza sortu diren mugimenduak, familia eta lagunei elkartasuna adierazteko.

Martxoaren 21ean berean kontzentrazioa egin zen eta biharamunean herri batzarra. Egun berean, egitekoa zen elkarretaratzea Guardia Zibila ere agertu zen, eta elkarretaratzea debekatu zuenez, 20ko lau taldetan egin zen. Goizean, berriz, paroa egin zen Leitza institutuan.

Martxoaren 24an, bi orduko lanuztea egin zen Areson eta Leitza eta kontzentrazioa ere deitua zegoen Leitza

Konponbide demokratikoaren alde, atxiloketa gehiagorik ez! Jone askatu! Matte zattu! lelopean.

Bestalde, Jone ikasten ari zela bizi zen Bizkaiko Algorta herrian ere kontzentrazioa egin zen joan den astean.

Martxoaren 21ean atxilotu eta 24an eraman zuten epailearen aurrera. Fiskaltzak espetxerako eskatu zuen.

Udal berriak

Olleneko paretik Bi ahizpetara dagoen errepidean konponketak egiteko zazpi enpresei bidali zitzaizen gonbidapena, eta sei aurkeztu dira. Astearte honetan, martxoak 29, hastekoak ziren bakoitzaren eskaintzak aztertzen. Zoladuran, argiteria sarean eta ur sarearen saneamenduan lanak egin beharko dira.

Bestalde, Sakolu eta Belakuko mendiak ateratzeko eskaintza hutsik gelditu da, alertze, izei eta pago arbolekin. Orain, bi aukera daude: egurgileekin berriro negoziatu edo %10 gutxiagorekin berriro enkantea atera.



ARGAZKIAK: HITZA

Hainbat elkarretaratze egin dira egun hauetan Jone Lozanoren atxiloketaren harira.



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Herriko aldizkaria prestatzen

Joan den astean, herritar batzuk eta Euskara zerbitzuko langilea Aresoko aldizkaria osatzeko asmotan bildu ziren, lantaldea egiteko. Norbaitek ideia berriekin parte hartu nahi baldin badu, ongi hartua izanen da.

ola
SAGARDOTEGIA

- 250 lagun eserita
- Klimatizatua
- Sagardotegiko menua

102 Meaka auzoa - 20304 IRUN - Tfnoa 943 623 130

APARAN, S.A.
BRIKOLAJA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagaiak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

GIZARTEA → GARAI BATEKO KOLEGIOAN

Lekarozko hizkuntz murgiltze zentroan urtean 3.000 lagun trebatu nahi dira ingelesean

2012ko ekain aldera zabalduko ditu ateak

TTIPI-TTAPA

Lekarozko egitekoa den proiektu berriaren lanekaitzina segitzen dute. Hiru jarduera izanen ditu: lehengo ukuiluetan hizkuntz-murgiltze zentroa (50.000 metro koadro) eginen da, garai bateko baratzetan enpresa parkea (49.691 metro koadro) eta eliza inguruan kultur eremua (11.695 metro koadro). Hizkuntz-murgiltze zentroak 2012ko ekain aldera zabalduko ditu ateak, eraikitze eta urbanizazio lanak akitutakoan. Eta urtero 3.000 haur, gazte, profesional eta irakasle ingelesean trebatzeko programak landu nahi dira. Hala azaldu zuten martxoaren 15ean egindako bisitaldian Alvaro Miranda bigarren

presidenteordeak eta Ekonomia eta Ogasun kontseilariak eta Juan Carlos de los Mozos Red Leaf-eko (enpresa esleipenduna) merkataritzak eta marketin zuzendariak. Azken honek gaineratu zuenez, «xedeak hizkuntzak ikasteko Lekaroz nazioarteko marka sortzea da, hizkuntza berrikuntzaren oinarria bihurtu dadin».

Hizkuntz-murgiltze zentroa martxan paratzeko ardura Red Leaf SL-Sedena SL enpresek izanen dute. Zentroa eraikitzeko lehiaketa apirilean deituko da eta lanak uda honetan hasiko dira. Bertalde, enpresa campusa urbanizatzeko eta sarbideak egiteko lehiaketara hamar proposamen aurkeztu ziren, eta lanak Iruña Construcciones enpresari esleitu zaizkio, 3,8 milioi euron, lizitazio prezioa baino %6,5 guttiago. Eta eliza zahar-berritzeko



UTZITAKO ARGAZKIA

Itxura hau hartuko du Lekarozko egitasmoak.

lanak ere urbanizazioaren barrenean hasiko dira. Ondotik, elizak, Udalak eta Gobernuak planifikatutako kultura espazioa osatuko da. Hiru jardueretarako 12 milioi euro inguruko inbertsioa egingen da. Gobernuak dagoeneko 4,1 milioi inguru inbertituak ditu.

Txirrindularitza Sari Nagusia

Afizionatu mailako txirrindulariei zuzendutako Baztango Sari Nagusia jokatu zen martxoaren 13an Almandondo-

zen. Caja Rural taldea jaun eta jabe izan zen, taldeko Nick van Geffen holandarra izan baitzen irabazle, bigarren postua ere talde bereko Karol Domalgaski poloniarak eskuratu zuen eta hirugarrena, Naturgas Energia taldeko Igor Merino sartu zen, 32 segundora. Laugarren postua ere Caja Rural taldeko Antonio Molinarentzat izan zela kontuan hartuz, taldekako sailkapena ere Caja Ruralek irabazi zuen. Tarte helmuguen sailkapena, proba irabazi zu-

en Nick Van Geffenen irabazi zuen eta mendiko sailkapena bigarren izan zen Karol Dolmagaskik.

Abesbatzako gaztetxoaren emanaldia Lekarozen

Elizondoko abesbatzatiak kontzertua eskainiko du apirilaren 17an, igandearekin, Lekarozko elizan. 11:30 ean hasiko da emanaldia eta abesbatzatiak ikustera joateko gonbidapena luzatu dute.

Ba al zenekien...

Ufestuak taldea bere laugarren diskoa grabatzen ari dela?



ARGAZKIA: AST

560 kiloko kategorian azpitxapeldun izanik akitu du Euskadiko txapelketa Amaiur sokatira taldeak

Pisu handiagoetan ez da ohorezko postuetan sartu, baina 560 kiloko kategorian azpitxapeldun izan da Amaiur Euskadiko Sokatira Txapelketan, Sokariren gibeletik, martxoaren 19an Arrigorriagan jokaturako saioan. Emakumezkoen 500 kiloko kategorian, 10 urteren ondotik, Sakanak jantzi zuen txapela, tiralarien artean Amaiurko Miren Bengoetxea eta Esther Iriarte zeudela.

egoi bardot obregozo arkitektoa
679649789 elizondo · braulio Iriarte 33, 1ºD · 31700
948250371 Iruñea · Irabeko monastegia 62, 4ºC · 31011

BAZTAN

UDALA → DIRU KONTUAK

Iberdrolak 19.620 euro sobera fakturatu dizkio Udal liburutegiari

Egiazko kontsumoa 5.506 eurokoa izan da

TTIPI-TTAPA

Isolamendu kaxkarra zuela. Obra gaizki egina zela. Hainbat argudio erabili ziren udal liburutegi berriaren argindar gastu handia azaltzeko. Baina arrazoia bertzelakoa izan da: Iberdrolak egiazko kontsumoaren arabera fakturatu beharrean, estimazioaren arabera fakturatu du, kontadorea irakurri gabe. Eta estimazio hori, egiazko kontsumitu dena baino 19.626,77 euro gehiagokoa izan da.

Hala, 2010eko martxotik 2011ko ilbeltzera dagokion kopuru hori itzuli egin beharko dio Iberdrolak Udalari, fakturazioaren %80. Iberdrolak 25.133,50 euro fakturatu zuen bitartean, egi-

azko kontsumoa 5.506,73 eurokoa izan zen. Azken lau urteetako fakturazioak, iazko urritik aurtengo urtarrilerak, alarma-argiak piztu zituen Udalean, izan ere, egiazkoa baino 15.000 euro handiagoa izan da. Iberdrolaren azalpenak lasaitasuna ekarri du, gaizki egin zen fakturazioak ezinezkoa bihurtzen baitzuen udal liburutegia mantentzea.

Gainera, burugabeko fakturak eztabaida handia piztu zuen udaletxean NaBaik eta UPNko zinegotzien artean, azken hauek lana gaizki egin zela leporatu baitzioten Udal Gobernu Taldeari. Martxoaren 14ko udal batzarrean eman zen Iberdrolaren komunikazioaren berri eta modu berean, NaBaik zuzenketa egitea eskatu zien UPNko zinegotziei, «bere erranek iritzi publikoaren aitzinean eragin duten kalteengatik».



ARGAZKIA: ONDIKOL

Meodik eta Arraztoak irabazi dute Antxitoneako paleta txapelketa

Unai Meoki eta Dani Arraztoa txapelak izan dira Elizondoko Antxitonea trinketeak antolatutako paleta goma txapelketaren kategoria nagusian. Martxoaren 19an jokaturako finalean Kiko Jaen eta Eduardo Urtxegiri 40-37 irabazi zieten. Bigarren mailan, Miguel Bidegain eta Mikel Argarate izan dira txapelak, finalean Kotte Plazari eta Mitxel Etxenikeri 40-35 irabazita.



ARGAZKIA: BAZTAN IKASTOLA ETA TESTUA: MAITE OTEIZA

'Lotu zaitetz birziklapenari' erakusketa arrakastatsua

Nafarroako Ingurumen Arloko Baliabidea Zentroak antolatutako tresna elektriko eta elektronikoen birziklapenari buruzko *Lotu zaitetz birziklapenari* erakusketa ibiltaria Elizondon eta Almandozen egon da berriki. Elizondon udaletxe ondoan egon zen, eta Elizondoko ikastetxeetako eta Lekarozko institutuko ikasleek parte hartu zuten, hainbortze herritarrekin batera. 300 bat lagun pasatu ziren erakusketatik eta antolatzaileen ustez, arrakastatsua izan zen. Almandozen bi egunez egon zen, eta Almandoz eta Zigako ikastetxeen eta herritarren bisita hartu zuen. Autobusa herri batera ekartzeagatik 50 euro bertzerik ez dira ordaindu behar.



Gas eta gasolio galdaren zerbitzu teknikoa
Marka guztiak

S.A.T. OFIZIALA: **fundital** **samo**

Martxan jartzea | Mantentze-kontratuak
Konponketak | Ordezko piezak

M. 620 97 82 97
Santiago, 93 · ELIZONDO



Sartu
gure web berrian

WWW.SILOTITE.COM



*Silo belak
egiteko
plastikoa*

- Edozein belar klasetan erabilgarria
- Aukeran 500 mm eta 750 mmtan
- Zultatzeo gogorra eta tiramenduetarako sendoa
- Elastikotasun ezin hobea
- Memoria elastiko bikaina
- Ongi itsikitzen dena
- Baldintza atmosferiko guztietan erresistentzia onekoa eta UV egonkortasun handikoa
- Ingurumenarekin erasokorra ez den plastikoa



www.silotite.com

SILOTITE
by formipac



Silotite®. Segurtasunaren aukera

ARoz-BERRI, S.A.

Tel. 948 581 021 / 948 580 258 - Faxe 948 452 103

irurita@arozberri.com - N-121 B errepidea, 46,7 kma - 31730 IRURITA

BAZTAN

HEZKUNTZA → AZPIEGITURA

Iruritako ikastetxe berria eraikitzeko lanak apirilean akituko dira

Ikasturte berriarekin irekiko direla jakinarazi du Hezkuntza kontseilariak

Maite OTEIZA/TTIPI-TTAPA

Iruritako ikastetxe publiko berria eraikitzeko lanak apirilean akitu omen dira. Hala adierazi zuen Alberto Catalan Hezkuntza kontseilariak martxoaren 16an egindako bisitan. Instalazio horiek ziurrenik irailean irekiko dituzte, 2011-2012 ikasturtearen hasieran. Bisitan, kontseilariak alboan izan zituen Patxi Esparza Ikuskaritza eta Zerbitzuen zuzendari nagusia, Peio Obregozo Iruritako alkateta eta Kontxi Zeberio zentroko zuzendaria, baita udal ordezkariak eta Guraso Elkarteak ere.

Nafarroa 2012 Planera bildutako obra honetarako 786.060 euroko inbertsioa egin da eta soilairu bakarreko eraikin berria egin da. Horretan Haur eta Lehen Hezkuntzako zazpi gela, informatika gela eta erabilera anitzeko gela egonen dira, baita irakasleen gela, zuzendaritza bulegoa, komunak eta bertze arlo batzuk ere, hala nola biltegiak eta ataripea. 70 ikasle eta 10 irakasle hartuko ditu.

Ikastetxea eraikitzeko lanak joan den abenduan hasi ziren eta Mariezkurrena enpresak egin ditu. Proiektua eta lanen zuzendaritza, berriz, OM Arquitectura y Urbanismo SLP estudioaren ardura izan dira.

Eskola berria eskatzen hasi zenean, sarbide egoki baten beharra ere azpimarratu zen. Izan ere, alderdi honetan, eskolaz aparte, Lekaroz, Gartzain eta Iru-



ARGAZKIA: ONDIKOL

Iruritako eskolako instalazioak bisitatu zituzten martxoaren 16an.



ARGAZKIA: ONDIKOL

Sabin filman ere Baztango irudiak

Filmak grabatzeko toki aproposan bizi garela dirudi, maiz aukeraten baituzte zinema zuzendariak Baztango herriak. ETBrentzat ekoizten ari diren *Sabin* filmean ere Baztango irudiak agertuko dira. Izan ere, Sabino Aranaren bizitzari buruzko pelikula hau grabatzeko, Elizondoko arkupeetan eta Istikonea etxeko balkoian, Iruritan, Bertizen eta Erratzun ibili dira. Gainera, extra bezala hainbat baztandarrek parte hartu dute.

ritako medikuaren etxea daude. Honek trafikoa-
ren gorakada ekarriko

du, eta sarbide txarra
izateaz aparte, hainber-
tze kotxeren trafikoak

arazoak ekarriko ditu,
gurutzatzea zaila dela-
koz.

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatua

Santiago, 59 20 • ELIZONDO
T. 948 581 468 M. 630 354 818

MENDI ostata

Santiago 25
948 580 313
ELIZONDO

MENDIA DE Jatorria

T. 948 453 060 • AMAIUR
www.mendialdea.com

ANZABAL INMOBILIARIA

- Zurich Asegururak
- Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
- Norma eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
- Errenta Deklarazioa, BEZA...
- Inmobiliaria
- Baserri, borda, pisu, etab... salmenta eta alkatariak
- Gestoria

Santiago, 15 • ELIZONDO • T./F. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

URDAZUBI/ZUGARRAMURDI

GIZARTEA → BILKURA GARRANTZITSUA

Ortziral honetan eginen den bilerarako deialdia egin du Akelarre Elkarteak

Zuzendaritza berritzeaz eta Sorginaren Egunez mintzatuko dira

Koro eta Margari

Bilkura garrantzitsu baterako deia egin du Zugarramurdiko Akelarre Elkarteak. Deialdia ortziral honetarako, apirilak 1, egin dute eta berreziki bi izanen dira landuko dituzten gaiak: alde batetik, zuzendaritza taldeko bi postu berri behar dira. Ber- teze aldetik, berriz, aur-

tengo Sorginaren Eguna egiteko bi proposamenen artean bat aukeratu beharko da.

Bilkura Akelarrenean izanen da, ortziral honetan, 20:00etan. Ahal bezainbat herritar gateko eskatuko dute.

Beteluko Abesbatza elizan

Joan den larunbatean, martxoak 26, Beteluko Abesbatza aditze-ko aukera izan ginuen herrian. Hasieran me- zan aritu ziren kanta- k ematen, eta ondotik kontzertu bat eskaini zu- ten.



ARGAZKIAK: KORO ETA MARGARI

Zerri-hiltzeak inauterietan

Beharbada argazkietatik ezagutuko duzue aurtengo inauterien gaia zein izan den: zerri-hiltzeak egin zituzten baserri-zerri. Hantxe ziren hiru zerri, zerri- hiltzaile bat, mondongerak, etxekoandrea, etxeko nagusia, apeza, beterina- rioa... eta afera behar den bezala ateratzeko behar ziren guztiak. Baserrietan xerri-puxka eta guzti partitu zituzten. Hori bai, modernitate puntu bat eman zio- ten zerri-hiltzeari: motozerraz hil zituzten zerriak!

SOULE
hileta artea
T. 948 417 444
M. 948 417 444
ARMUA

ARMUA JAIETXEA
T. 948 599 131
Zugarramurdi-ko erria. 3 km.
URDAZUBI

MONTXO OSTATUA
Dantxarinetik 2 km-tara
TABAKO-DENDA
ANZAN-BORDA • URDAZUBI
Egunero irekia 10:30etik 02:30era



UTZITAKO ARGAZKIA

Oier eta Izaroren bataioa

Argazkian gurasoen besoetan ageri diren Oier eta Izaroren bataioa egin da be- rriki Urdazubiko elizan. Irudi honetan aita, ama eta aitatxi-amatxiekien ikus dai- tezke bi ttikiak.

SENPERE

ARTEA → AURTENGO GAIA ETXEBIZITZAK DIRA

Arte garaikide bigarren festibala prestatzen ari dira udazkenerako

Berinak II berritasunez beterik dator

Franck DOLOSOR

Berinak arte garaikide festibalaren bigarren edizioa urriaren 28tik hazilaren 13ra ospatuko da heldu den udazkenean. Etxebizitza izanen da aurtengo gaia eta gomiten artean daude jadanik Kader Atia sortzailea, Marc La Thuillière argazkilaria, Ibai Hernandorena miarriztarra eta Maialen Disard basusarriarra, bertzeak bertze. Sound System kontzertu ibiltaria egitea pentsatzen ari dira Sarako azken besetan egin zen bezala. Bertzalde, jaialdiko arduradunak eskuz esku ariko dira lanean aurten Euskal Kultur Erakundearekin arte plastiko egileak Senpererat ekarrazteko. Anne Marie

Jeannou eta Iñaki Viquendi Senpereko arte garaikide zaleek prestatzen duten festibalak zer erran haundia sortu zuen duela bi urte ez baitzen sekulan holakorik ikusi herrian. Gainerat, ainitzek begi txarrez ikusi zuten Herriko Etxeak 12 000 euroko dirulaguntza ematea. Ahatik, festibalaren lagunek uste dute ekimen hori beharrezkoa dela herriari oldar berria emateko.

Dantza talde berria

Elkartetxeak batasun berria aterpetzen du azken egun hauetan, Andaluziako dantzak irakasten dituen, hain zuzen. Ikastaroak ematen dituzte asteartetan 09:30 eta 11:00 artean helduentzat eta larunbatetan 14:00 eta 16:30 artean haur, gazte eta helduentzat. Andaluzia aski urrun da baina hango doinuek izigarriko



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

2009ko udazkenean Karrika Nagusiko sarteak apaindu zituzten Berinak festibalaren lehen ekitaldiaren kariatarat.

arrakasta dute Lapurdi kostaldean. Jadanik zonbait dantza eskola eta festibal daude Donibane Lohizunen. Herrian berean doinu hauek ezagunak ditugu Artzinerin alde hortan ikusgarriak egiten baitituzte zaldien eta dantzarien dohainak uztartuz.

ETB1 numerikoan

Martxoaren 29an telebista analogikoa, betiko telebista, itzaltzekoa da betiko eta handik goiti telebista numerikoa baizik ez da ikusten ahalko Larrungo antenaren bitartez. Martxo hondar huntan telebista numerikoa ere itzalko eta berriz piztuko dute berehala. Beraz, telebistak edo numeriko

dekodagailuak berrizintonizatu beharko ditugu, eta lan hori eginez, frantses telebista guziak, TVPI Iparraldeko tokiko telebista eta Euskal Telebistaren lehen katea ere agertuko dira. Frantziako eta Espainiako gobernanduek mugaz gaindiko hitzarmena egin dute berriki ETB1 Iparralde osoan ikusia izan dadin eta beraz, telebista numerikoa ikusiko dutenek ETB ere hartzen ahalko dute. Gainerat, itzalguneetan bizi direnek FRANSAT satelitarren bitartez segitzen ahalko dituzte kate guziak ETB1 barne. Lehen aldia da ETB1en seinalea satelite bitartez hedatuko dela eta gaine-

rat molde idekian harpidetzarik gabe. Mugaz bi aldeetako agintariek aterabide hau atzeman dute ETB Ipar Euskal Herriko etxe guzietan ikusia izan dadin. Baliteke aterabide bat izatea ere Nafarroako mendialdeko herritarrentzat. Telebista digitala Larrundik hartzen dutenek Euskal Telebistaren lehen katea ikus lezake, eta bertzenaz, FRANSAT satelitarren bitartez har dezakete ETB.



udana salazones

UNE-EN-ISO 9001
LAC
SQC-02-0199

Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gazitua
Bakailu gezatua eta kongelatua, erabiltzeko prest

Alkaiaga ind. - Bararta, 8 - 23 pabiloia - LESAKA - Tfn: 948 631 536 - Fax: 948 631 560

ANTXITONEA Turismo

24 orduko bitartekaria - Apartaketa
Aste gutxiago gela puztetan - Hart musikala eta TV
Gela berria sialde eta bost zerbitzuan

Brasile Iriarte 16, Elizondo • 948 581 807 • 948 581 853
hostal@antxitonea.com • www.antxitonea.com

AI SIALDIA → GOITIBEHERAK ETA BERTZE MODALITATEAK

'EH A TO P' txapelketa antolatu du Gaztetxeak apirilaren 9an eta 10ean

Erakustaldia
Santinazioko
lepoan iraganen
da

Joanes GARCIA

Gisa guztietako teknikak ikusteko aukera izanen da apirilaren 9an eta 10ean Santinazioko lepoan eginen den *EH A TO P Txapelketa*. Gaztetxeak antolatu du eta bi egunetan banatu du egitaraua. Larunbatean 15:00etatik 19:00etara goitibeheren txapelketa eginen da, eta igandean, 09:00etatik 18:00etara longskate, street-luge, butboard eta roller modalitateen erakustaldiak. Besta segurtatu nahi izan denez, otorduak ere izanen dira.

**GAZTETXEAREN
20. URTEURRENA**

20 urte pasa dira Etxola Gaztetxea sortu zenetik. Elkarte guziak bezala gorabeherak ezagutu ditu baina beti hor da xutik herria biziarazteko xedearekin. Urtebetetze urte horren kariatat egun berezi bat antolatu zuten martxoaren 12an.

Gaurko eta ohiko ki-deek hitzordua eguerdian finkatu zuten Gaztetxean. Aperitifa goxo baten ostean, 70 bat pertsona Omordiko gelara abiatu ziren, gaiteroek lagundurik. Ilun-

tzean, Bost Gehio boskote polifonikoak zintzur bustitzea alaitu zuen. Bertan, urteetan manera batez edo bertzez gazteak lagundu dituztenak gonbidatu ziren. Urte luze haïetan ateratako argazkietaz gozatu zuten jendeak. Gauak giro ezin hobean segitu zuten Bergarako Emon taldearekin. Gutienez bertze 20 urtez aritzea opa diegu.

**Ate idekiak Oihain
ikastolan**

Zuen hurrek euskarazikas dezaten nahi baduzue, Oihain ikastolak haren ateak idekiko ditu larunbatean, apirilak 2, 9:00etatik eguerdira. Egun aproposa zuen galderak pausatze eta ikastolaren bisita egiteko. Bertzalde, 17:00etan ikastolako hurrek euskal mitologian oinarritutako ikusgarri bat emanen dute Lurberri gelan.

**Haur Kantu
Txapelketa**

San Josepe eskolako 3, 4 eta 5. gelako 22 hurrek *Zatozte gurekin euskaraz mintzatzerat* kantua aurkeztu zuten Uztaritzen Lapurdiko Haur Kantu Txapelketan. Zaldibobo taldearen *Kolore kolore* kantua birmoldatu zuten. 2. sailkatzerara lortu bazuten ere, ez ziren finalerako sailkatu. Biba zuek.



ARGAZKIA: JOANES GARCIA

Betiko eta oraingo Gaztetxeok martxoaren 12an egin zuten hitzordua.



ARGAZKIA: JOANES GARCIA

Aisialdi zentrokoak natura babestearen alde

Herriko hiru eskoletako hurrak biltzen dituen aisialdi zentroak natura babesteko ekimen berezi bat sustatu du. Apirilaren 1etik 7ra iraganen den *Eskola natura* proiektuan parte hartuko dute. Proiektu honetan birziklapena lantzen da eta horretarako martxo osoan eskolaz kanpoko orduak prestakuntzan pasatu dituzte. Aurtengo gaia oihana izanki, saratarrek kartonezko kutxezko loreak egin dituzte. Ekimena Bizi Garbia herri elkargoko sindikatak bultzatu du eta saristatuak apirilaren 6an izendatuko dituzte.

Ikusgarria

Igande honetan, apirilak 3, abenduan eman zen *Oroitzapenetik bidaiarat* ikusgarria emanen dute ehun saratarrek Luhusoko harri xuri gelan, 17:00etan.

Korrika

Korrika apirilaren 11n pasako da Saratik, Beratik etorrira. Lehen kilometrak 17:30 alderara izanen dira.

Kirolak

Eskubaloia: Urtxintxek Urruñan 28-14 galdu dute. Bruges liderra-

ren kontra ere, nahiz eta defentsa lan on bat egin 26-20 galdu zuten.

Erugbia: Puyoon 35-05 irabazi dute saratarrek.

Zeramikaren benta
Venta du Carrelage

asteartetik ostirala arte
09:00-12:30 / 14:30-19:00
larunbata
09:00-12:30 / 13:30-18:00

Lori venta
31710 Zugarramurdi
Tel.: 00 34 948 59 90 24
Fax.: 00 34 948 59 93 02
Mug.: 06 15 11 52 23

www.laventaducarrelage.com

EZKONTZAK

Jose Manuel Goñi Baleztena eta **Miren Iguzkiagirre Bereau**, Oizkoa eta Arantzakoa, martxoaren 19an.

Joseba Sagastibeltza Baleztena eta **Aitziber Lekuona Ansa**, Leitzakoa eta Goizuetakoa, martxoaren 11n Goizuetan.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Gorka Iriarte Sansiñena, Urdazubiakoa, martxoaren 18an.

Oihan Arrupea Perurena, Leitzakoa, 11 marzo.

Malen Indabere Sanzberro, Etxalarakoa, martxoaren 9an.

Maialen Lasaga, Sarakoa, otsailaren 26an.

Xabat Korta Irtzoki, Lesakakoa, martxoaren 5ean.

Ioritz Iriarte Azpirotz, Lesakakoa, martxoaren 11n.

Inhar Aioroa Errazkin, Iturengoa, otsailaren 21ean.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

HERIOTZAK

Pascual Apezetxea Urrutia, Doneztebekoa, martxoaren 13an, 80 urte.

Jesus Etxepare Agesta, Lesakakoa, martxoaren 14an, 77 urte.

Estefani Orellana Vasquez, Elizondokoa, martxoaren 14an, 15 urte.

Modesta Elorga Gorostidi, Arraiozkoa, martxoaren 15ean, 87 urte.

M^a Jesus Biurrarena Lukanbio, Arantzakoa, martxoaren 18an, 75 urte.

Ramon Migeltorena Mitxeltorena, Amaiurkoa, martxoaren 19an, 87 urte.

Paito de Santiago Iantzi, Lesakakoa, martxoaren 18an, 61 urte.

Carmen Plaza Agirre, Elizondokoa, martxoaren 19an, 94 urte.

Francisco Orriaga Jaunsaras, Irurietakoa, martxoaren 19an, 88 urte.

Juana Aldabe Larrea, Aresokoa, martxoaren 20an, 80 urte.

Micaela Goñi Gaskue, Sunbillakoa, martxoaren 22an, 85 urte.



**Maritxu
AZPIROZ IRAZUSTA**
Leitzan, 2011ko martxoaren 5ean hila

*Eskerrik asko
gure ondoan
izan zareten guztiei.*

FAMILIA



**Joseba Andoni
URDANITZ ETXEBERRIA**
1969ko apirilaren 12tik 2002ko apirilaren 2ra

IX. URTEURRENA

*Udaberriak bizia ekarriz
Zure askatasun modua gogoratzen du
Zure ametsak buruan izanik
Zure indarra guria egiten dugu.*

GURASOAK ETA SENIDEAK



**Estefani
ORELLANA VASQUEZ**

*Agur bat baino gehiago
gero arte.*

*Tefi, maite zaitugu
eta ez zaitugu atzendumo.*



**LEKAROZ INSTITUTUKO ZURE LAGUN
ETA IKASKIDEAK, HEZKUNTZA KOMUNITATEKO
GAINONTZEKO KIDEEKIN BATERA**

KROSA → AURRERA KIROL ELKARTEAK ANTOLATUA

Apirilaren 9an jokatuko da Leitzako Herri Krosa

Izena egun
berean edo
aurretik
Internetez eman
daiteke

TTIPI-TTAPA

Leitzako Aurrera Kirol Elkarteak antolatzen duen eta dagoeneko 33. edizioa duen Leitzako Herri Krosa apirilaren 9an, larunbatarekin, jokatuko da. Zazpi kategoriatan banatuta egiten da ibilbidea: benjamin (800 metro), alebin eta infantil (2,5 kilometro), kadete (5 kilometro mutilek eta 2,5 kilometro neskek), junior (7,5 kilome-

tro mutilek eta 5 kilometro neskek) senior eta beteranoen mailako (10 kilometro gizonak eta 5 kilometro emakumeek) lasterketak izanen dira.

Abiatzeko ordua ere kategoriaren arabera izanen da: benjaminak 16:15ean aterako dira, alebinak eta infantilak 16:30ean, kadete eta junior mailakoak 17:00etan eta gainerakoak 17:30ean. Guztiak kale nagusitik abiatu eta plazan helmugaratuko dira.

IZEN-EMATEA

Bi modu dituzte lasterkaiek izena emateko. Aurretik egin nahi izanez gero, www.herrikrossa.com webgunean, 8 euro



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Joan den urteko edizioan 200 parte-hartzaile inguru atera ziren Leitzako krosean.

ordainduta, eta bestela, egunean bertan, 15:30-etik 17:00etara, 10 euro ordainduta. Aurrerako bazkideei 8 euro kobratuko zaizkie. Izen-emateko epea lasterketa hasi baino ordu erdi lehenago bukatuko da.

SARIAK

Sariei dagokienez, benjamin, alebin, infantil eta kadeteen mailan dominak banatuko dira eta gainerakoek kamisetak banatuko zaizkie.

Horrez gain, Leitzan hazi edo erroldatuta daudenen artean, lehenen-

go, bigarren eta hirugarren sailkatutako herri-tarrek trofeoak eskuratu dituzte.

Gainerakoan, kategoriatan hartu gabe, gizonetako lehen sailkatuak 200 euroko saria jasoko du, bigarrenak 140 euro; hirugarrenak 80 euro eta laugarrenak 50 euro. Emakumezkoetan lehenak 100 euro irabaziko ditu, bigarrenak 70 euro, hirugarrenak 40 euro eta laugarrenak 25 euro.

Andres Perezek egindako 29:49ko marka hobetzen duenak beste 150

euroko saria hartuko du, eta axuriak ere banatuko dira taldeka: gizonetako seniorretan lasterketa 48 minutu baino gutxiagotan egiten duten bost laguneko taldeak axuria hartuko du sari gisa; emakumezko seniorretan 38 minutu azpitik egiten duen hiru laguneko taldeak ere bai; beteranoetan 50 minutu denbora egiten duten hiru gizonetako taldeak eta emakumezko beteranoetan 30 minutu azpitik egiten duen hiru laguneko taldeak ere axuria hartuko dute.



Maria Angeles GANBOA MITXELORENA I. URTEURRENA

Beran, 2010eko apirilaren 25ean

Seguru urte aunitz pasatuko direla eta hau lehenbizikoa bertzerik ez dela Baina urteak kontatu ahal izateak berak zurekin ahazten ez garela adierazten du.

ZURE FAMILIA

Bere urteurreneko meza apirilaren 17an egiten da, Berako Elizan, 10:00etan.



Pablo Jose DE SANTIAGO IANTZI Paito

Lesakan, 2011ko martxoaren 18an, 61 urte zituela

Aske zinen aske hori nola ahaztu? Adiorik ez Paito zauden tokian zaindu.

LAB-ZALAIN TRANSFORMADOS

Rekordatorioak egiten ditugu



Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua

KULTURKARI • Andutzeta 12, Etxalar
Tfnoa: 948 63 54 58

Motorrerekiko duen zaletasuna attarengandik datorkio Julen Huarteri (Urdazubi, 1981). Eta afizio horrek Libiako basamortura eraman du berriki bertze 19 lagunekin

batera. Libian gatazkak bete-betea dauten honetan, Murzuq desertua zeharkatu dute motorrean, baina Libiako liskarren inolako berririk izan gabe. Egoeraz jabetu

orduko hartu zuten etxerako bidea, baina «esperientzia positiboa» izan dela kontatu digu, nahiz eta bitarte horretan, hemen sortu den korapiloak «pena» ematen dion.

Julen HUARTE | Urdazubiko motorgidaria

«Libiako liskarrez ohartu gabe ibili gara eta esperientzia polita izan da»

G. PIKABEA | URDAZUBI

Ttikitatik du afizio motorra Julen Huartek, eta bortsu urte baino ez zituela, attack motorra oparitu zion. Halere, 16 urterekin heldu zion gogoz motorrari. 18-19 urterekin txapelketetan parte hartzen hasi zen, eta dagoeneko hainbat sari badiu irabaziak: Nafarroako txapelketa, Espainiako cross country modalitatean... Baina berriki egin duen espedizioa izan da urdazubiarrak hedabideetan gehiago agertzearen arrazoia. Izan ere, Libiako liskarren berririk izan gabe, Huartek eta bertze 19 lagunek Libiako Murzuq basamortua zeharkatu dute motorrean.

«Arras polita eta duna haundiak dituelako» aukeratu zuten Huartek eta lagunek Murzuq motorrean ibiltzeko. Bozpasei hilabete lehenagotik ekin zioten prestaketei: «han sartzeko baimenak eta hainbat gauza behar dira. Desertua ongi ezagutzen duen bat bagenuen, baina erraza da galtzea. Pasabide zail batzuk ere badaude eta ikasten denbora nahiko pasatu genuen», adierazi digu. 20 lagun izan dira espedizio honetan parte hartu dutenak, 13 motorrarekin, eta gainerakoak hiru kamioitan janaria, edaria, gasolina... garraiatzeko.

Kamioigidariak otsailaren 10ean abiatu ziren



ARGAZKIA: J. UHARTE

Julen Uharte urdazubiarrak Libiako basamortuan.

Libiara eta motorzaleek hilaren 19an hartu zuten Bartzelonan Libiako hiriburua den Tripolirako hegaldia. Ordurako hasiak ziren mugimenduak Libian, baina Huartek kontatu digunez, «kamioigidariak lehenagotik joan ziren, eta Tunez eta Libia gurutzatzean dena lasai ikusi zuten. Horregatik erabaki genuen joatea».

Hegazkina hartu zuten egunean ailegatu ziren Sabhara, eta handik 100 kilometrotara dagoen kanpin batean pasatu zuten gaua. Kanpinera bidean somatu zituzten lehendabiziko protestak: «mikrobusean gindo-

LEHENBIZIKO PROTESTAK
«Mikrobusean kanpinera gindoazela, Gaddafiren aldeko gazte batzuk aurkitu genituen oihuka. Lehenbizian ez ziguten utzi pasatzen eta sustoa hartu genuen. Baina gero utzi ziguten».

BELDURRA
«Beldurrik haundiena etxetik egoera larria zela erran zigutenean eta biharamunean ezin komunikatu genbiltzala ikusitokian sentitu nuen»

azela, Gaddafiren aldeko gazte batzuk aurkitu genituen oihuka. Lehenbizian ez ziguten utzi pasatzen eta sustoa hartu genuen. Baina gero utzi ziguten».

Biharamunean abiatu ziren Murzuq-era. Sakelekoak ez zebiltzala ere konaturatu ziren [Gaddafik komunikazioa moztu zuen], baina gainerakoan deus berezirik ez. Igandetik ortzegunera, otsailaren 20tik 24ra, bortsu etapa egin zituzten: «arras gustura ibili ginen». Baina ortzegun arratsaldean, sakelekora etxekoan mezuak ailegatzen hasi ziren «Libia gerra zibil baten atarian zegoela eta atera be-

har genuela erranez», azaldu digu. Orduan sentitu zuten «beldurrik haundiena, «etxetik egoera larria zela erran eta biharamunean ezin komunikatu genbiltzala ikusita».

300 kilometrotara zuten lehenbiziko herrira hurbildu eta hango sakelekoak erosi zituzten etxe-koekin eta Espainiako Enbaxadarekin harremanetan jartzeko. Hortik aitzinera, Aljeliantz abiatu ziren. Kostata, baina lortu zuten Libia eta Aljelia arteko muga zeharkatzea: «gero jakin dugu muga horretatik azken 20 urteotan ez dela turistik aterra», dio gazteak. Behin Aljelera ailegatuta Euskal Herriko hegazkina hartu zuten motorgidariak, eta kamioigidariak ere etxera abiatu ziren.

Iragarri bezala, martxoaren 1ean itzuli ziren etxera, baina ez hasierako asmoa beteta: «helburua bi basamortutan ibiltzea zen, eta bakarra egin genuen». Halere, «esperientzia positiboa» izan dela aitortu digu: «liskarren berririk izan gabe ibili gara, inkontziente, eta hobe». Basamortuan motorrean ibili den lehendabiziko aldia izan da berretzat, baina errepikatze prest ikusi digu. Hori bai, «gauzak lasai daudenean». Orain, enduro modalitatean parte hartuko duen Espainiako txapelketa du jomuga.

AIZKORA → SARALEGITARREK ANTOLATUTAKO LEHIA

Larretxeak eta Zabaletak irabazi dute Adania Aizkolari Sariketa

Larretxea 23 urtez azpikoen mailan nagusitu da eta Zabaleta 14 urtez azpikoetan

TTIPI-TTAPA | LEITZA

Aizkolari gazteak lanean paratzeko asmoz Gabriel eta Mieltxo Sara-

legik antolatutako Adania Aizkolari Saria arrakasta haundiarekin joan da. Lekunberrin eta Donezteben jokaturako finalerdien ondotik, finala martxoaren 20an jokatu zen Leitzan eta 350 lagun inguru bildu ziren Amazabal frontoian.

Hiru kategoriatan jokatu ziren lehiak: **23 urtez azpiko proba nagusia** Oihan Larretxea be-



ARGAZKIA: HITZA

Ruben Saralegi eta Oihan Larretxea Adania Sariko finalean.

ratarra nagusitu zen: 13 minutu eta 8 segundo behar izan zituen lanak amaitzeko. Bigarren Ugaitz Mugertza II. agelditu zen, 13 minutu eta 34 segundokolana egin da; hirugarren Ruben Saralegi leitzarra sailkatu zen (15:15) eta lauga-

rren Aratz Mugertza III.a (15:55).

18 urtez azpikoetan, berriz, Eloi Kortxero eta Unai Otaño aritu ziren. Kortxerok 8 minutu eta 6 segundotan bukatu zituen lanak eta Otañok, berriz, 32 segundo gehiago behar izan zituen.

14 urtez azpikoetan, etxean gelditu zen txapela. Mikel Zabaleta leitzarrak irabazi zuen, 6 minutu eta 6 segundoko denbora eginez. 50 segundo atera zizkion bigarren sailkatu zen Iker Vicentieri. Hirugarren Julen Larrea gelditu zen (08:38).

PILOTA → XXXII. LAXOA TXAPELKETA ABIATZEAR

12 taldek parte hartuko dute asteburu honetan hasiko den Laxoa Txapelketan

Arraioz, Irurita, Doneztebe eta Oizko taldeak dira

TTIPI-TTAPA

Asteburu honetan, apirilak 2 eta 3, emanen zaio hasiera Laxoa Txapelketaren XXXII. edizioari. 12 taldek eman dute izena eta abuztura arte ia asteburu guztietan partidak jokatu dira. Arraiozek eta Oizek bina talde aurkeztu dituzte,

bortz Doneztebek eta hiru Irurita.

Ligaxkaren bidez abiatuko da lehia eta taldeak bi multzotan banatuta ariko dira. A multzoan, Doneztebe A eta D, Arraioz A eta B eta Irurita B eta C ariko dira eta B multzoan, Doneztebe B, C eta E, Irurita A, eta Oiz A eta B. Aldaketarik ezean, ekainaren erdialdera bitarte ligaxko partidak jokatu dira—guztira 10. jardunaldi— eta multzo bakoitzeko lau onenak final laurdeneta-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Joan den urtean, laxoa txapelketako finala Oizen jokatu zen.

ra pasako dira. Hauek ekainaren 26an, uztailaren 3an eta 10ean izanen dira. Finalurrekoak uztailaren 17an, 24an eta 31n jokatu dira eta finala abuztuaren 6an Irurita plaza.

TALDEKIDEAK

Arraioz A: Iñaki Mihura, Jon Gamio, Asier Zubigarai eta Jesus Mari Laurnagarai; **Arraioz B:** Aitor Zubigarai, Miguel Maritorea, Aritz Alunda eta Mikel Mindegia. **Doneztebe A:** Santi Min-

degia, Pascual Bertiz, Jokin Arraztoa eta Koldo Legarra. **Doneztebe B:** Asier Mutuberria, Jabier Almandoz, Jokin Apeztexea eta Juan Telletxea; **Doneztebe C:** Jose Manuel Mitxelorena, Josu Juanena, Mikel Mutuberria eta Fermin Jorajuria. **Doneztebe D:** Unai Sappupp, Xabier Ibarrola, Andoni San Martin eta Joseba Grazenea; **Doneztebe E:** Ramontxo Etxebeste, Jon Apeztegia, Aritz Baleztena eta Joseba Juanena.

Irurita A: Jorge Azkarate, Andres Elizaintzin, Igor Urrutia eta Iñaki Etxandi. **Irurita B:** Guillermo Etxenike, Joseba Urtasun, Jesus Etxenike eta Xabier Ripa; **Irurita C:** Karlos Goikoe txea, Xabier Barberena, Jagoba Ramos eta Xabier Bazterrika.

Oiz A: Sergio Fagoaga, Bittor Zelaieta, Iñaki Mindegia, Iñaki Mindegia eta Juan M^a Mindegia. **Oiz B:** Iker Bereau, Ugutz Zelaieta, Koldo Mindegia eta Jose Agustin Mindegia.

martxoak 31-apirilak 13

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.net edo 948 63 54 58

Kontzertuak



LEITZA | 2011.04.02

Atekarock jaialdi handia larunbatean

Argazkiko Berri Txarrak taldearekin batera, Gose, Sutagar, Vendetta eta Kop ariko dira kontzertu handian eta gero Bad Sound System gaztetxean.

Zinema



LESAKA | 2011.04.01

Errepresio frankistaz zinema dokumental zikloaren azkena

Errepresio frankistaren memoria politikoa oinarri hartuta egin den zinema dokumental zikloaren azken saioan *827 km sin retorno* filma ikusgai Kasinoan.

Txapelketak



SARA | 2011.04.09-10

EH A TO P txapelketa antolatu du Gaztetxeak

Santiniako lepoan EH A TO P txapelketa antolatu du Gaztetxean. Larunbatean goitibehera txapelketa eta igandean long-skate, street-luge, roller...

Soto bertsolariekin. Sarrerak Errekalden salgai.

Ikastaroak

AMAIUR

Barazkigintza ekologikoa

Apirilaren 19, 26an eta 28an eta maiatzaren 3an, 5ean eta 10ean barazkigintza ekologiko ikastaroa eskainiko da Otsondo gelan 17:00etatik 20:00etara. Izen emateko epea apirilaren 10ean akituko da (otsondo@terra.es edo 659 099309 telefonoa).

Kontzertuak

LEITZA

Atekarock jaialdia

Apirilaren 2an *Elkarlanetik jai*, *musikatik eraiki!* lelopean jaialdi haundia. 20:30etik aurrera Berri Txarrak, Gose, Sutagar, Vendetta eta Kop taldeen kontzertua kiroldegian. 01:00etan Bad Sound System gaztetxean.

AMAIUR

Joseba Tapiaren azken lana Herriko Ostatuan

Apirilaren 2an Joseba Tapiak *Eta tira eta tumba* bere azken lana aurkeztuko du Herriko Ostatuan, 20:00etan hasita, Otsondo Barri-de Elkarteak antolatua. Ondotik, Talde Basak antolatutako kantu afaria egingen da Gaztelu Elkartean.

ELIZONDO

DJ Oihan Vega (Kerman) Lurren

Apirilaren 9an Oihan Vega DJ (Kerman) izanen da Lur dantzalekuan, 01:00etatik aitzine-rra. Sarrera: 9 euro eta kontsumizio bat doan 03.30ak arte.

BERA

Musika bandaren kontzertua

Apirilaren 9an kontzertua eskainiko du Musika Bandak 20:00etan Kultur Etxean. Antolatzailerak: Berako Musika Banda.

Erakusketak

ELIZONDO

Nafarroako kazetaritzak 100 urte

Apirilaren 3tik maiatzaren 2ra *Nafarroako kazetarien mendeurre-*

na (1911-2011) erakusketa Arizkunenea Kultur Etxean, Nafarroako kazetariak antolatua.

Antzerkiak

ELIZONDO

Raimundo Bueno ipuin kontalaria

Apirilaren 13an Baztan Ikastolan eta San Francisco Javier Eskola Publikoan izanen da ipuin kontalaren, 2011ko Arte eta Kultura egitarauaren barrenean.

Bertsoak

IRUÑEA

Nafarroako txapelketako finala

Apirilaren 9an Labrit pilotalekuan jokatu da Nafarroako Bertso-lari Txapelketako finala, 17:00etan hasita.

BERA

Bertso-afaria Agerra Elkartean

Apirilaren 16an bertso-afaria antolatu da Agerra Mendi Taldearen elkartean, Sebastian Lizaso eta Julio

LEITZA

Edertasun tailerra batzar aretoan

Apirilaren 6an eta 13an edertasun tailerra eskainiko da doan batzar aretoan, 11:00etan, 15:30ean eta 18:00etan. Automakillajea eta azalaren oinarritzko zainketa landuko dira. Xehetasunak 36. orrian.

Eskalada ikastaroa

Apirilaren 2an, 9an eta 16an eta maiatzaren 7an eskalada ikastaroa 10 eta 16 urte artekoentzat, 09:00etatik 13:00etara. Izen-ematea eta informazioa kiroldegian (948 510719).

BERA

Komiki tailerra

Apirilaren 1ean komiki tailerra egingen da liburategian, 17:30etik 19:30era, 8-13 urte arteko neska-mutikoei zuzendua.

Lehiaketak

BAZTAN

Baztandarren Biltzarreko kartela

Apirilaren 9ra arte aurkezten ahal dira

PROPOSAMENA

IRUÑA

Nafarroako Bertsolari Txapelketako finala

Nafarroako Bertsolari Txapelketaren finala Iruñera bueltatuko da aurren eta Labrit pilotalekua betetzea izanen da Bertsozale Elkartearen erronka. Hau idazterakoan, Jon Barberenak eta Estitxu Arozenak zuten finale-rako txartela eskuratua, baina irakurri orduko jakinen da Julio Sotok iaz lortutako txapelaren bila lehiatuko den zortzikotea.



Baztandarren Biltzarra iragartzeko kartel lehiaketarako lanak.

SARA

EH A TO P Txapelketa Gaztetxearen eskutik

Apirilaren 9an eta 10ean Santinazioko lepoan EH A TO P txapelketa antolatuta du Gaztetxeak. Xehetasunak 45. orrian.

Ospakizunak

BERA

Gazte Eguna

Apirilaren 9an egun osoko ekitaldiak antolatuta ditu Xaxerna Gaztetxeak. Xehetasunak 19. orrian.

Mendi irteerak

BAZTAN

Baztango Mendigoizaleen ateraldia

Apirilaren 3an 5 Milak ibilbidea egingen dute Baztango Mendigoizaleek: Belate-Gartzaga. Okolin-Saioa-Artesiaga-Erdiz-Argintzu-Azaldegi-Albako Harria-Urballo-Elizondo. Lineako autobusean joan dira Belatera. **Apirilaren 10ean** Hondarribira ateraldia egingen dute Baztango Mendigoizaleek.

Zinema

LESAKA


Errepresio frankistaren memoria politikoa

Apirilaren 1ean 827 kilómetros sin retorno filma eskainiko da Kasinoan 19:30ean, errepresio frankistaren memoria politikoa oinarri hartuta egin den zinema dokumental zikloaren azken saioan.

Gertaera guztiak ikusteko, begiratu: www.ttipi.net (agenda)

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua



Udalbatza bahituaren kasu pollita

KARLOS LINAZASORO

Elkar, 2011

T.ko udalbatza eratzen den egun berean, alkate eta zinetotzi berriak beren karguaren zina egiten ari direla, horra non hartzen duen plaza giza aldra anomiko bezain arriskutsuak. Armaturik datoz, haserre datoz. Zer nahi dute? Ez dakigu, baina bahiturik daukate udaletxea, eta haren barnekoak oro. Abiapuntu horretatik, eleberriz zoro edo zogarri bat eraiki du Karlos Linazasorok, zeru-lurrrak batuz eta direnak eta ez direnak elkarrekin nahastuz, ironiatik absurdorainoko koloreekin marraztuz gizakiari eta gizarteari buruzko ipuin edo parabola edo dela delako sailkaezin bezain gomendagarri hau. Karlos Linazasorok (Tolosa, 1962) nobela berri bat dakarkigu: *Udalbatza bahituaren kasu pollita*, udal berria eratzen den egun berean langile asaldatu batzuek korporazio osoa bahitzen duteneko pasartetik abiatu eta ustekabeko bideetatik garamatzana. «Umorezko nobelak umore handiz egiten ditut, umoreko ibil nadin» dio egileak.

Musika



Puro infierno

VENDETTA

Bagabigam musika ideiak, 2011

Vendetta taldearen *Puro infierno* bigarren diskoa lehenbizikoa bezain alai da. Alaitasuna ez dago borrokan erne egotearekin, eta batez ere gizarte honekin, hori baita gure sistemak ematen diguna, infernu hutsa, alegia. Oztantasun intelektuaria eta boterearen federekin egiten den legearen sustapen amorratuari aurre eginez ikusiko dugu Vendetta. Baina Vendetta taldeak, bere musikarekin, jaiaren suari ez dio muzin egin, beti zutik eta algarra bizian. Bizitza osoa borroka da eta bizitza musikarekin batera defendatzen datoz trinko bezain zorrotz eta indartsu. Vendetta taldearen *Puro Infierno* ska erritmoen menara egindako diskoa da eta ska doinuen alboan reggae, rocksteady, skamex, rantxerak, tex-mex, patxanga eta ska-reggae bezalako erritmoek ematen diote bizitza rock indartsu baten erreferentzia iraunkorarekin. Vendetta taldearen dantzarako ska erritmoek irribarra itsatsirik dute uneoro.

Internet



Nafarroako konkistak 500 urte

[WWW.1512-2012.COM](http://www.1512-2012.com)

Gaztelak Nafarroako Erresuma konkistatu zuela 500 urte beteko dira heldu den urtean eta horren inguruan hainbat ekimen antolatzen ari da 1512-2012 Nafarroa Bizirik Ekimena. Horietako bat da webgunea. «Luzea da nafar erresumak jasan zituen eraso zerrenda, baina 1512koa garrantzitsuena izan zen, eta galdutako askatasunaren ikurra bilakatu da dagoeneko. Data honek paregabe ko parada eskaintzen digu orotzapen historikoari buruz ez ezik, indarrez kendu ziguten independentzia-estatalidadea aldarrikatzeko ere. Ez gaude data soil baten aitzinean, gure herriarendako aski hunkigarria den erreferente baten aurrean baizik» diote webgunean eta Multimedia, 1512-2012 Berriak, Hitzaldiak, Berri Laburrak, Hemeroteka, Nabarmena eta bertze hainbat atal lantzen dituzte, baita Denda, Artxiboa edo kontaktua egiteko bertze loturak ere.

Nire aukera



Birjina MARIEZKURRENA
Leitzako musikaria eta idazkaria

«Negu partean eskiatzera edo snow egitera joatea gustatzen zait»

Jaso ikastolako idazkari eta Trikidantz musika taldeko kidea izanik ez dirudi asti libre gehiegirik izaneren duenik, baina «denarako denbora» badela aipatu digu Leitzako neskak. «Taldearekin udaberrietik urrira arte aritzen gara gehienbat eta neguko asteburuak niretzako izaten ditut gehienbat». Eta horrela koetan, «eskiak eta snow hartu eta Frantziara alderajoste gustatzen zait», dio. Taula gainean egon behar ez duenetan, parranda ere ez du alde batera uzten, «eta alde guzietako inauterriak aprobetxatzea gustatzen zait» adipatu digu, «udan egiten ez duguna, dena neguan egin behar, noski!». Musika aditzaez gain, bere gitarra hartu eta kantutxoak ateratzea gustatzen zaio eta «orain zeharkako txirula ikasten ere hasi naiz». Oporretan ere hona eta hara bidaiatzea gustatzen zaio eta hainbat lekuetan gustora ibili arren, ez du bakarra bereizteko. Hori bai, «noizbait Maurizio irletara joan nahi nuke eta lortuko dut».

ETXEBIZITZAK
salgai

ORONÓZ-MUGAIRI. 100 m²ko etxebizitza salgai. Mobeztatua. 3 logela, egongela, sukaldia, 2 bainugela, jaki-gordailua eta kanpora ematen duen trastelekua, urbanizazio pribatua, lorategi handia, aparkalekuak guztientzako eremuan. 228.000 euro. ☎620 679145.

BERA. Pisua salgai. 84 m² eta trastelekua. 3 logela. Oso toki lasaia. Leihoak eta sukaldia aldatu berriak. Bista onak eta eguzkitsua. ☎687 950371.

ANZABAL
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisua, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurra behar ditugu.

ZUGARRAMURDI

- Baserria salgai 80.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatua bere lurra-ekin salgai.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581 459
anzabal@anzabal.com

DONEZTEBE. Pisua salgai. Sukaldia, komuna, 2 logela, egongela handia eta despentsa. 15 m²ko trastelekua. 138.000 euro. ☎630 160353.

EZKURRA. Portonea baserria salgai. Lur eta sorroekin. ☎948 615125/646 548610.

**MERKATU TTIKIA**

948 63 54 58

info@ttipi.net edo www.ttipi.net

SAIL HONETAN IRAGARKIA JARTZEKO 8€ ORDAINDU BEHAR DA ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO 10€

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta TELEBISTA eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

BERA. 89 m²ko pisua salgai, 4. solairuan. 3 logela, bainugela, komuna, sukaldia, egongela, trastelekua eta balkoia. Gas naturala, berogailu eta igogailuarekin. ☎681 017423 (deitu arratsalde).

SUNBILLA. Herri erdian etxea salgai. Sotua, bizitza eta ganbareekin, s 100 m² solairu bakoitzeko eta baratze kokor batekin. 3 logela, jangela, pasillo ederra, sukalderekozina eta komun bat. Dena gasolio berogailuarekin. ☎608 672106/634 293088.



SUNBILLA. Karrika Nagusian pisua salgai. 3 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldia eta trasteleku handia. ☎680 475419.

ETXEBIZITZAK
errentan emateko

BERA. Eztegarra pasealekuan pisu mobeztatua errentan emateko. Berogailu zentralarekin. ☎948 630270.

BERA. Agerra auzoan pisua errentan emateko. 3 logela, 2 komun, trastelekua eta berogailuarekin. ☎645 238739.

ELGORRIAGA. Pisua errentan emateko. 3 logela eta berogailuarekin. ☎630 822018.

GARAJEAK/LOKALAK
salgai

DONEZTEBE. Belarra jabetxe-erretgia errentan

emateko. ☎948 451797.

BERA. Iturlandeta karrikako bajoetan 49 m²ko garajea salgai. ☎661 460267.

BERA. Ostaturia salgai. ☎663 708615.

LUR EREMUAK
salgai

ELIZONDOtik kilometro batera 8.000 m²ko lursail urbanizatua salgai. Bista zoragarriak eta prezio ekonomikoa. ☎659 174688/637 794318.

BERA. Agerra auzoan 1.400 m²ko lur eraikigarria salgai. ☎948 631206.

LANA
eskaintzak

BERA. Artisautzako makina batean aritzeko mutil bat behar da. Eskuz lan egiten moldatzea eta frantsesetik jakitea garrantzitsuak izanen dira. ☎948

631406 / 673 012339.

LESKA. Haur bat zaintzeko pertsona bat behar da. ☎609 834378.

Estetizista behar da ahalik eta abudoen lanean hasteko. ☎661 432630.

LESKA. Eraikuntza enpresa batek arkitektoa edo arkitekto tekniko behar du. Bi urteko esperientzia eskatzen da. Obra zuzendaritza eraman, aurrekontuak egin eta bulegoko lana egiteko izanen litzateke. AutoCAD programa erabiltzen jakitea eta euskara ahoz eta idatziz menperatzea kontuan hartuko da. Curriculumak bidali: ip/obra@hotmail.com edo Otsango industrialdea, 8. Lehen solaiura. 31770 Lesaka.

BERA. Erizaina behar da, gizon edo emakumea, hortz klinika batean lan egiteko. ☎948 631631.

BERA. San Jose zahar etxean ordezkapenerrako sukaldari esperientziaduna behar da. ☎948 630104.

LANA
eskariak

Neska gazte euskalduna edozein lanetan aritzeko prest dago: umeak zaintzeko, denda, ostalaritza... Ostalaritza esperientzia duena. ☎676 273141.

Emakume euskaldun bat adineko jendea zaintzen ariko litzateke. ☎662 607571.

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA
(martxoaren 11tik 18ra bitarteko prezioak)

ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 45,00 € (-2,00)

Zerri gizena
1,265 € kilo. (=)

Zerramak:
0,430€ Kg/bizirik. (=)

BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 4,10 (=)
1.koa 3,80 (+0,01)
2.koa 3,56 (+0,14)

Urruxak: €/kg. Kanal

Extra 4,18 (=)
1.koa 3,90 (+0,01)
2.koa 3,76 (=+0,14)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze ttikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 120,00 (=)
idixkoak 180,00 (=)

Aretze nabarrak:
urruxak 110,00 (=)
idixkoak 130,00 (=)

Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 2,85/2,95
Zaldi-behorrak: 1,75/1,95

Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 5,50/6,20
8-10 kilokoak: 4,60/4,90

Neska bat adinekoak zaintzen edo beste edozein lanetan ariko litza-teke. ☎671 122776.

ZERBITZUAK
denetarik

Javier Manterola
Tehniko instalatzailea
Iturgintza • gasa
kalifikazioa
Tfnoa: 629449602 • BERA

BORDA
ISOLAMENDUAK
Termikoak | Akustikoak
Suaren kontrolak
Pladar lanak • Eraberritzeak
Eraikuntza • Industriarik
Dekorazioa • Sobai modurrak
Tf. 948 637 548 • M. 609 477 377
ZAZKA • Instalazioak eta Mantentzeak

ROSA BELTRAMI
PSIKOANALISTA
Kontsultak eskatu orduz
☎ 948 272011 (RUJAN)
☎ 948 580975
Jaime Urteja 42-2.D - ELIZONDO

BIDASOA
TELAKAK • PERTSONAK
ESTROIAK • AUTOMATIZAZIOAK
MONTAJEAK • BERRIKONSTRUKTIOAK
T.F. 659 971 442
BERA

MOTORRA
salerosketak

Land Rover Defender TD5 salgai, 125.000 kilometroekin. Bonba gasolioa eta filtroak berriki aldatuak. ☎690 388134 (Xabier).



Opel Astra salgai. NA-AK. ☎649 669252 (deitu arratsalde).

Renault Grand Espace 2.2 DCI Expression salgai, 7 plazakoa. 2003koa. 161.000 kilometro. Egoera onean. ☎655 743991.

Seat Cordoba 1.9, 110 CV eta 2001. urtekoa salgai. Egoera onean. ☎680 313745.



MOTORRA
tailerrak

MENDAUR MOTOR
948 450333 • DONEZTEBE
SUZUKI
(gasolina eta diesela)
MITSUBISHI
(luze eta laburrak)
TURISMOAK

ANIMALIAK
salgai

Monturako 2 urteko zaldi pintoa salgai. ☎628 538652.

ETXALAR. Bi ahari salgai. ☎667 605033.

DENETARIK
salerosketak

LEITZA. Bulegoko mahai eta apalak edo armarioa behar ditut etxetik lana egiteko. Dohainik edo merke-merke hartuko nituzke. ☎639 869312.

Yamaha bajua eta Ampeg AP-15 amplia salgai. Flight case fundarekin biak. ☎685 633 195.



Akazi piketeak salgai. ☎647 276744.

Karro denda osoa salgai. Oso egoera onean. Paperak badauzkat. 900 euro. ☎656 752799.

SUNBILLA. Su egurra salgai, lotean edo xehe-tua. ☎659 867287 /699 461394.

DENETARIK
galdu/aurkituak

GOIZUETA. Kotxeko giltza bat eta etxeko giltza multzo bat agertu dira duela hilabete bat plaza inguruan. ☎948 514006.

DENETARIK
bertzelakoak

Dominikar Errepublika, Ekuatore Ginea eta Ginea Bissauko umeak udan etxean hartzeko eta umeak apadrinatzeko familiak behar dira. ☎634 401978.

Martxoaren 14an Lekarozko gurutzean gertatutako istripuaren **lekukoekin hitz egin** nahi dut. Batez ere, furgoneta zuriaren (Berlingoren antzekoa) jabearekin. Gezurra dirudien arren, ko-txe urdinari errua botatzen dio eta zuk ikusitako oso garrantzitsua da.

SANTESTEBAN Tailerrak

SCENIC LUXE PRIVILEGE 1.4 DCI 130 CV 47.000 km - 2008koa
CLIO III EXPRESSION 1.6 DCI 85 CV km-0
KANGOO COMER 1.5 DCI 70 CV 17.700 km - 2008koa

12.900€ **7.900€**

ETA GAINERA
Laguna II Expression 1.9 DCI 110 CV - 2008koa
Kangoo Exa 1.5 DCI 85 CV - 2008koa
Espace Authentique 2.2 DCI 150 CV 2008koa

MEGAN TERANO 2.0 TdI 120 CV 87.000 km - 2008koa

DONEZTEBEKO RENAULT-en KOTXE IA BERRIETAN SEKULAKO ESKANTZAK

IGANTZIKO UDALA

Aparteko plan bereziaren hasierako onespena

Igantziako Udalak, 2011ko otsailaren 23an egindako bileran, erabaki zuen hasiera batean onestea Irisarri jauregiko turismo eta aisialderako gunearen aparteko plan berezia, Canteras de Yanci S.A. enpresak sustatua baino bidea pribatuko sailkapena aldatzeko baldintza pean publikoa dela konstataz eta bidea libre uztea dagoen ataka kenduz.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 75. artikuluan ezarritako irajarrak, espedienteak jendaurrean egon da hilabete batez, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita, azter dadin eta bidezko alegazioak aurkez daitez. Jendaurreko aldi inork ez badu alegaziorik aurkezten, dokumentua behin betiko onetsiko da, bidezko bada.

Igantzin, 2011ko martxoaren 4an | Alkatea, Agustin SAINZ IRIGOYEN

tzen dio eta zuk ikusitako oso garrantzitsua da. ☎948 503816.

Inguruko ekitaldiak, informazioa eta bitxikeriak jakin nahi badituzu

Egin zaitez **ttipi-ttapa** ren harpidedun

- Hego Euskal Herria 37€
- Europa 55€
- Baztan, Urdazubi eta Malerreka 31€
- Amerika eta Australia 123€
- Ipar Euskal Herria 55€
- Leitza 15€

(0034) 948 63 54 58
www.ttipi.net

urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,35€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa; 4) www.ttipi.net bitartez



Almandozko etxekoandre goxoarendako. Apirilaren 21ean beteko ditu urteak. Aunitz urtez eta ongi pasa familiarekin. Musu aunitz!



Aupa **MARIBEL!** Segi orain bezain umore onean eta ez aldatu. Zure laneko lagunak, beti zure agindupean.



NAHIA ANSALAS ARBURUA etxalartarak 3 urte beteko ditu martxoaren 31n. Ongi pasa zure egunean sorgintxo! Muxu bat familiaren partetik.



Aurtizko gure muttiko tiikiak 12 urte beteko ditu apirilaren 2an. 12 muxu haundi Lesakako osaba Patxi-ku eta izeba Felixiren partetik.



XUBAN TABERNA MUTUBERRIA arantzarrak 5 urte beteko ditu apirilaren 10ean. Aunitz urtez familiaren partetik eta muxu haundi bat.



Zorionak Lesakako **MADDALEN KLOP FERNANDEZI!** Ederki pasa zure eguna bihurri! Eguberrietan txokolatezko tarta erraldoi batekin ospatuko dugu! Mila muxu Ekhi eta Lesakako zure kuadrillaren partetik. Muaka!



ARITZ ARANBERRI GOIA: zorionak potxolo eta 5 muxu haundi haundi.



ANA eta IRAIA izeba-ibobek martxoaren 23an eta apirilaren 2an urteak beteko dituzte. Zorionak Iturengo eta Aizoango familiaren partetik, baina berexiki, Naroa, Janire eta Unaxen partetik besarkada potolo-potolo bana.



Gure erizainak apirilaren 1ean 27 urte beteko ditu. Aunitz urtez **AINARA!** Muxu haundi bat lagunena eta Oier eta Enearen partetik.



ANDER PAGOLA LOPEZ beratarrak 2 urte beteko ditu apirilaren 16an. Zorionak familia guztiaren eta berexiki Jon eta Asierren partetik. Muxu bat.



Leitzako beltzaranak apirilaren 2an urteak beteko ditu. Aunitz urtez taldearen partetik. Berendu goxoaren zain geldituko gara!



INTZA MUJIKA aranoarrak 5 urte bete ditu martxoaren 19an. Zorionak eta muxu handi bat Ander, aitaxo eta amaboren partetik.



Bi sorgin hauek apirilaren 9an eta 2an 13 urte beteko dituzte. Zorionak eta muxu haundi bat!



MAIDER PETRIRENA sunbildarrak urteak beteko ditu apirilaren 10ean. Zorionak amatori bi panpoxa hauen partetik, baita attito, atautxi Pako, amaxi Mari-kruz eta izeba Nerearen partetik ere. Ongi pasa eguna eta berendu goxo-goxoa prestatu. Muxuk.



Urdazubiko amaxi **DOLORESEK** eta **MIRARIK** 80 eta 2 urte bete dituzte martxoaren 24an. Aunitz urtez familiaren partetik.



OLATZ IRIARTE ITURZAETAK urteak beteko ditu apirilaren 13an. Aunitz urtez eta muxu potolo potoloa etxeko guztien partetik gure *super eskiadorari!* Prestatu merendola goxo goxoa e!



Aunitz urtez potxola! Hagitz ongi pasa zure eguna eta ea berendu goxo bat prestatzen diguzun. Muxuk. Kaxkarrak.



OIHAN SARRATEA ETXEKOLONEAK 5 urte beteko ditu apirilaren 4an. Zorionak eta musu asko Aimar, Naya eta gurasoen partetik.



Aurtizko **EKINE** MINDEGIAK apirilaren 2an 13 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu haundi bat atta, ama, Arkaitz, Miren, Xabi eta Ainararen partetik. Astelehenean afari goxoa prestatu!



Zubietako **ANE** ANSOK apirilaren 9an 13 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu bat etxeko guztien partetik eta berexiki Nahiararen partetik. Ongi pasa eguna!



Irungo **MIRARI** ETXEBERRIA ZUBIALDEK 9 urte beteko ditu apirilaren 4an. Zorionak eta 9 muxu potolo Xune, Unai, Jone, Aimar eta Landerren partetik, baita osaba-izeba eta attona-amaxiren partetik ere. Ongi pasa eguna.

EZKONTZA GONBIDAPENAK

100 gonbidapen + 100 sobre
Zuk nahi dituzun bezala PERTSONALIZATUAK





TTIPI TXARTELArekin BETI IRABAZTEN DA!

**DESKONTUAK
ZOKKETAK
ALDIZKARIA
MUSUTRUK**

538 ALEKO IRABAZLEAK

- * OLATZ ZUGASTI CD-a
- AINHOA ETXEBESTE | SUPILLA
- * DONOSTIAKO AQUARIUM 2 SARRERA
- BELEN ARREGI | DONEZTEBE
- * ONINART KAMISETA
- ANTON DAGERRE | BERA
- * PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS KAMISETA
- JOSE MIGEL MIHURA | URDAZLUMI
- * TTIPI SASKIA
- FERNANDO LAZKANO | BERA

Eskatu zurea 948 63 54 58 telefonoan

3 LIBURU
Erein argitaletxea
www.erein.com

ARNASAK CD-a
Elkar argitaletxea
www.elkar.com

MARTIKO LOTEA
Martiko
www.martiko.com

NESKEN KAMISETA BAT
Onddo ta punto
www.onddotapunto.com

5 LIBURU
Ibaizabal argitaletxea
www.ibaizabal.com

PUNPALAPAN CD+DVD
Urbaintxa eskola
www.urbaintxa.org

DESKONTUAK

FANTXIKE
www.fantxiike.com
%10, 30etik gorako gastuan

GOIKO
%10 kopia digitalatan

Intzuri
%10eko deskontua

IPARLA kirolak
%8, 30etik gorako gastuan

IPINGI
%10, 30etik gorako gastuan

ABIBADISKOJAIA

01:00 9€

APIRILAK
2
LARUNBATA

DJOHIANVEGA

KERMAN

01:00 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

APIRILAK
9
LARUNBATA

LURDJOTAK

01:00 - 02:00 Dohainik
02:00etatik aintzinerara 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

APIRILAK
16
LARUNBATA

LURDJOTAK

01:00 - 02:00 Dohainik
02:00etatik aintzinerara 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

APIRILAK
21
ORTZEGUNA

JOSELUANAYAK

01:00 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

APIRILAK
23
LARUNBATA

JALISKOBAND

01:00 9€

APIRILAK
30
LARUNBATA

LAISTER... VENDETTA, TXARRENA, KOMA...



garagardotegia



MENUAK, MUSIKA ZUZENEAN...

OSTIRAL, LARUNBATA ETA JAIEGUNEKO BEZPERETAN IREKIA
ERRESERBAK: TEL. 948581883



WWW.LURELIZONDO.COM